



**UDALBATZAK 2006KO EKAINAREN 30EAN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila seiko ekainaren 30eko 09:05 zirelarik, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ alkate jaunaren (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- José Miguel GOLMAYO GAUNA
- Joseba Iñaki URIBE BURGOA
- Gema INSAUSTI MERINO
- José Ángel SÁNCHEZ GALLARDO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- Luis M^a OIARBIDE ARIZMENDI
- José M^a BURGOS VIÑARÁS
- Mikel CARCEDO MITXELENA
- Juan Ignacio MÉNDEZ BEGUÉ
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Mikel ARRETXE GUTIERREZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Elías MAESTRO RUIZ
- José CRUZ LEGORBURU AYESTARAN

Ez da etorri José Angel RODRIGUEZ MEDINA jauna (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Bertan dago udal kontu-hartzaile Jose M^a ARENZANA jauna.

Bertan dago eta egintzaz fede ematen du idazkari nagusi Francisco Javier LESCA EZPELETA jaunak.

1. Udalbatzak 2006ko apirilaren 28an eginiko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri eta onartzea, bidezkoa bada.

Idazkariak irakurri du 2006ko apirilaren 28ko ohiko bilkurari zegokion akta.

Ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Onartzea 2006ko apirilaren 28ko ohiko bilkurari zegokion akta.

2. Posta, erabaki ofizialak eta Lehendakaritzaren kudeaketak.

Idazkariak Alkatetzak 2006ko ekainaren 19an José Ángel RODRIGUEZ MEDINA jauna Hezkuntza eta Gazteria arloetako delegatu izendatzeko eginiko dekretuaren berri eman du. Era berean, Hezkuntza eta Gazteria batzordeburu izendatua izan da.



3. Alkateak emaniko ebazpenen (827 zk.tik 1063 zk.ra, biak barne), zinegotzi eskuordetuek (1331 zk.tik 1587 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emanikoen berri ematea.

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (827 zk.tik 1063 zk.ra, biak barne), zinegotzi eskuordetuek (1331 zk.tik 1587 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emanikoen berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. 2005eko Kontuak: erreklamazioa ebatzi eta behin-betiko onartzea.

Juan Carlos Muruak, NAN: 15.904.399Z duenak, 2006ko ekainaren 1eko erregistroko sarrera duen eskabidean (9076 zenbakiduna), erreklamazio bat bideratu zuen, eta bertan, zera eskatzen du:

“Likidatzeko dokumentuan egin beharreko aldaketak egiteko indarrean dagoen Legeria zehatz-mehatz betetzearren”.

Kontu-hartzaileak 2006ko ekainaren 7an eginiko txostenean, hirugarren paragrafoan, zera esaten du: “Gastu-gainditze horrek, hasiera batean, aurrekontu-oreka hautsi zuen. Ala eta guztiz ere, Alkate jaunak 2005eko aurrekontuaren likidazioa onartzea zela-eta, 2006ko martxoaren 15ean eginiko ebazpen baten bidez, oreka berriro eskuratu zen gain-gastu horiek aurrekontuan aurreikusi baino diru-sarrera handiagoak jasoz edo gastu-partidak ekonomizatuz finantzatu zirelako. Modu horretan, 2005eko abenduaren 31n Diruzaintzako Gerakin Garbia HIRU MILIOI HIRUREHUN ETA HIRUROGEHITA BOST MILA LAUREHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOKoa (3.365.405,60 €) zen. Horregatik, likidazio hartan ez da inolako zuzenketarik egin behar, nahiz eta Udalbatzari jakinaraziko zaion gastuen kudeaketan eginiko irregulartasunaren berri”.

Kontuen Batzorde Bereziaren proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* EAko Oiarbide jaunak adierazi duenez, argitu nahi du bere alderdiak Ogasuna batzordean proposamenaren aurka hartutako jarrera. Horrela, aurreko Ogasun batzordean – aurrekontu-proiektuari eginiko erreklamazioak eztabaidatu zirena– hartutako ildoari jarraiki, erreklamazioari erantzuten zaion lehenengo atalean abstentziora joko lukete, eta kontuak osorik bozkatzerakoan aurka bozkatuko lukete.

Mintzaldiak amaitutakoan.



Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU) eta 9 aurkakoekin (PP, EA, EAJ/PNV),

ERABAKIDU

1. Erreklamazioa hein batean onartzea, hots, gastu-kudeaketan eginiko irregulartasuna Udalbatzari jakinaraztea, baina goian adierazikoagatik likidazio-dokumentuan zuzenketarik egin gabe kontu-hartzaileak eginiko txostenean adierazitakoagatik.
2. 2005eko Kontu Orokorrari behin-betiko onspena ematea, baita Kontuen Batzorde Bereziaren txostenak, Auditoriaren txostena eta aurkezturiko erreklamazioa ere, 2/2003 Foru Arauaren, abenduaren 19koa, 63.4 artikulua ezartzen duen bezala, Gipuzkoako Erakundeen Aurrekontuena.

5. 6/06 zk.ko kreditu-aldaketa, kredituak esku aldatuz.

Kredituak aldatzeko espedientea ikusi dute, Udal honetako Aurrekontuaren gastuen partiden artean transferentziak eginez bideratzen ari dena.

Ogasuneko delegatuak eginiko proposamena aztertu dute, baita gai honen inguruko txostenak, ziurtagiriak eta gainontzeko jarduerak ere. Eta kontuan izanik adierazitako aldaketak lagunduko duela Aurrekontuaren zeregina bideratzen eta espediente horren bideratzea indarrean dagoen legeriaren arabera dela,

Ogasuna Batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 11 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU) eta 9 abstentzioz (PP, EA, EAJ/PNV).

ERABAKIDU

- 1.- Onartzea 231.330,00 €-ko aurrekontu-aldaketa (6/06 zk.koa), hots, aurrekontu horretan gastuen partidetan kantitate berdineko kredituak gehituz (alta emanez) eta kredituak transferituz (baja emanez).
- 2.- Kreditu-aldaketa hau behin-betikotasunez onartuta geratuko da jendaurrean egon beharreko 15 laneguneko epean inork ez badu erreklamaziorik egiten, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatzen duen eran.

6. Errenteria Musikalek ematen duen zerbitzuagatikiko tasaren ordenantza arautzailea: akats zuzenketa.

Errenteria Musikal Patronatuaren Zuzendaritza Batzordeak, 2006ko ekainaren 7an, zera erabaki zuen: 2006-07 ikasturteko hainbat tarifa zuzentzea lehen akats tekniko bat egin zelako.



Errenteria Musikalen idazkariak 2006ko ekainaren 8an eginiko txostenean esplikatzen du zein den akatsa eta hori zergatik zuzendu behar den.

Eta Kontu-hartzaileak hil honetako 14an eginiko txostena ikusitakoan,

Ogasuna Batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

Zuzentzea Ordenantzan antzemandako akatsak eta ondorengo tarifa-koadro berria onartzea:

2.2.10.- "ERRENTERIA MUSIKAL" MUSIKA AKADEMIAN ZERBITZU EMATEA.

I – TARIFAK.

Artikulua. 2006/07 ikasturteko tarifak hauxek izango dira:

Kontserbatorioko tasak:

Errenterian erroldatuak

Ondo dago

1.1.2. Errenterian erroldatu gabeak:

Sartzeko azterketa,

85,00 € esaten duen lekuan

72,00 € esan behar du.

Lehenengo zikloko ikasturte osoaren matrikula,

1.070,00 € esaten duen lekuan

867,00 € esan behar du.

Bigarren zikloko ikasturte osoaren matrikula,

1.257,00 € esaten duen lekuan

1.018,00 € esan behar du

Hirugarren zikloko ikasturte osoaren matrikula,

1.257,00 € esaten duen lekuan

1.018,00 € esan behar du.

Instrumentu nagusia egiteke badu,

252,00 € esaten duen lekuan

207,00 € esan behar du.



Instrumentu osagarria egiteke badu,

131,00 € esaten duen lekuan
109,00 € esan behar du.

Beste ikasgai bat egiteke badu,

73,00 € esaten duen lekuan
61,00 € esan behar du.

Ikasgai gehiagoz matrikulatzeagatik,

122,00 € esaten duen lekuan
101,00 € esan behar du.

Musika Eskolako Tasak:

1.2.1. Erreterian erroldatuak
Ondo dago.

1.2.2. Erreterian erroldatu gabeak:

I. Mailan

291,00 esaten duen lekuan
238,00 € esan behar du

II. Maila-hasiera

355,00 € esaten duen lekuan
290,00 € esan behar du.

II. Maila (3 ikasgai)

563,00 € esaten duen lekuan
458,00 € esan behar du.

II. Maila (2 ikasgai)

430,00 € esaten duen lekuan
351,00 € esan behar du.

III. Maila

430,00 € esaten duen lekuan
351,00 € esan behar du.

IV Maila (ikasgai 1)

208,00 € esaten duen lekuan
170,00 € esan behar du.



IV. Maila (ikasgai 2)

430,00 € esaten duen lekuan
351,00 € esan behar du.

Ikastaroak

291,00 € esaten duen lekuan
238,00 € esan behar du.

Hainbat

291,00 € esaten duen lekuan
238,00 € esan behar du.

Dantza I

291,00 € esaten duen lekuan
238,00 € esan behar du.

Dantza II

151,00 € esaten duen lekuan
125,00 € esan behar du.

Bestelakoak, kolektiboak

151,00 € esaten duen lekuan
125,00 € esan behar du.

Bestelakoak, indibidualak

207,00 € esaten duen lekuan
169,00 € esan behar du.

7. Proposamena: Auzo-bideetan kamioiak eta pisu handiko ibilgailuak ibiltzeagatiko tasaren ordenantza arautzaileari hasierako onespena emateko.

Errenta eta Ordainarazpen Sailak 2006ko maiatzaren 23an auzo-bideetan kamioiak eta pisu handiko ibilgailuak ibiltzeagatiko tasa arautzen duen Ordenantzari hasierako onespena emateko bidalitako proposamena ikusi dugu.

Halaber, Ruiz de Mendoza eta Iñaki Azkarate jaunek 2006ko maiatzaren 19an izenpeturiko zergatia edo justifikazioa.

Eta kontu-hartzaileak 2006ko ekainaren 14an eginiko txostena ikusi ostean,
Ogasuna Batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,



ERABAKIDU

1. Hasierako onespina ematea auzo-bideetan kamioiak eta pisu handiko ibilgailuak ibiltzeagatiko tasa arautzen duen Ordenantzari, zeinak hitzez hitz zera baitio:

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASAREN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA ARRAZOIEN AZALPENA

Alde batetik, Udal jabariko auzo-bideetan kamioi bakoitzak sortzen dituen kalteak identifikatzea ezinezkoa da, nahiz eta aurretik fidantza eskatu eta horren bidez ibilgailu bakoitzaren jarraipen espezifikoa egin. Beste alde batetik, bideak tona-kopuru handiko kamioiak ibiltzeagatik etengabe hondatzen dira. Hori dela eta, komenigarria da tasa bat ezartzea, neurri batean, bideak zaintzea eta kontserbatzea hein batean kaltea sortzen dutenen ardura ere izan dadin.

Udalaren eskumena da udal interesak babestea, eta horri dagokion toki erregimeneko araudia udal ondasun eta zerbitzuen ingurukoa da. Beraz, Udalak herri jabariko auzo-bideak hondatzen dituzten ekintzak saihesteko duen interesa ondorengo artikuluetan jasotzen da:

- Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 2.25.1 eta 2.b artikulua.
- Toki-erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 78. artikulua eta ondorengoak.
- Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauaren 41. eta 81. artikulua.

Aurreko guztia kontuan hartuta, proposatzen dut ordenantzari hurrengo eranskina gehitzea:

2.1.4.- Kamioi eta pisu handiko ibilgailuek Errenteriako Udaleko auzo-bideetan ibiltzea. EGINTZA ZERGAGARRIA

1. ART.

Tasa honen egintza zergagarria da kamioiei eta pisu handiko ibilgailuei Errenteriako Udaleko auzo-bideetan ibiltzeagatik emandako baimena hurrengo kasuetan.

1. Aldez aurretik baimena eskatu beharko dute baimenik gabe ibiltzea debekatuta dagoela adierazten duten seinaleak dituzten auzo-bideetan ibiltzeko gehieneko karga bost (5) tonatik gorakoa izan eta urtean 50 bidaiari baino gehiago egiten duten ibilgailuen jabeek.

2. Aurreko puntuan adierazitako baimena eskatu beharko da lursailak egokitu eta betetzeko eta zabortegeak egiteko lizentzietarako, baita harrobiak dauden gunek zaharberritu edo erauzte lanak eta antzeko jarduerak egiteko.

Jarduera horiek beste udalerrri batzuetan gauzatu arren Errenteriako auzo-bideetan ibili behar izanez gero, berorien titularrak udal baimena eskatu beharko du.

ZERGA-OINARRIA

2. ART.

Tasa honen zerga-oinarria dira kamioiek eta pisu handiko ibilgailuek garraiatutako materialaren (lurra, harkaitzak, agregatuak,...) metro kubikoak (m³), baita jarduera kokatua dagoen tokiraino iristeko ibilitako udal auzo-bideen kilometro kopurua ere.

ZERGA-TIPOA

3. ART.

1. Auzo-bideetan ibiltzeagatik ezarritako Zerga ordaintzetik salbuetsita daude 1000 m³tik



beherako bolumena garraiatzeko emandako baimenak.

2. Baimena beharreko jarduera bakoitzeko 1.000 euroko gutxieneko tipoa ezartzen da udal baimen bakoitzeko.

3. Udal tasa kalkulatzeko ondorengo formula aplikatuko da.

TASA (€) = 0'1 x bolumena m³tan x km kopurua

Formulako 0'1, koefiziente finko bati dagokio, eta bolumena, berriz, m³tan Udalak edo ingurumenean eskumena duten autoritateek baimendutako bolumen osoa. Azkenik, kilometro kopuruarekin adierazten da baimendutako kamioiek edo ibilgailu astunek erabiltzen dituzten udal bide publikoen luzera. Ibilbide hori burutuko da eskualde-errepidearen eta isuria botatzeko baimena behar duen puntuaren artean.

4. Bideetako ezohiko kalteak, horiek sortzen dituen kamioiak ordainduko ditu, eta horretarako espedienteak irekiko zaio.

KUDEAKETA

4. ART.

1. Bideetan ibiltzeko eskatutako baimena jardueragatik ordaindu beharreko tasa ordaindu ondoren emango da, 3. artikulua araberera.
2. Udaltzaingoak edo udal agintariek eskatuz gero, baimena erakutsi egin beharko da.
3. Auzo-bideetan aurreko artikuluetan adierazitakoaren arabera emandako baimenik izan gabe ibiltzeak 3. artikulua ezartzeagatik ordaindu beharreko kopuruaren bikoitza ordaintzea ekarriko du. Kasu horretan, kobratzea Diru-Bilketaren Araudi Orokorrari jarraiki egingo da.

SORTZAPENA

5. ART.

Tasa ordaintzeko betebeharra sortzen da Udalak auzo-bideetan ibiltzeko baimena ematen duen une berean.

ZERGA KUOTA

6. ART.

Zerga kuota kopuru finko baten gainean ezartzen da, 3. artikuluan adierazitakoaren arabera.

2. Hartutako erabakiak jendaurrean 30 lagunez egongo dira. Epe horretan edonork erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izango ditu.

3. Erabakia behin-betikoa bihurtuko da erreklamazioak egiteko garaian inork ez balu egingo.

8. Proposamena: Haur-eskoletan jangelako zerbitzuak emateagatik prezio publikoaren ordenantza arautzaileari hasierako onespina emateko.

Gizarte Zerbitzu Saileko delegatuak 2006ko ekainaren 14an idatzi bat egin du. Bertan haur-eskoletan jangela-zerbitzua emateko Ordenantza Fiskala sortzea proposatzen du.

Eta Kontu-hartzaileak 2006ko ekainaren 14an eginiko txostena ikusi ostean, non zerbitzuaren kostuari buruzko azterlana jasotzen baita,

Ogasuna Batzordearen proposamena ikusitakoan,

Ondokoak mintzatu dira:

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi duenez, bere alderdia abstenitu egin zen haur eskolen jangeletarako bekarik ba ote zegoen argitu arte. Geroztik jakin dute Gizarte



Ongizate kontseilaritzan beka daudela, baina ez haur eskolen jangeletarako bakarrik, baizik eta jangela eta matrikula kontuan hartuta ematen direnak, hau da, diru-sarreraren arabera ematen direnak. Horregatik, jarrera aldatu eta proposamenaren alde bozkatuko dutela, gaineratu du.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, bera pozten da frogaketa horiek egin izanaz eta batzordean aitatu zen ildo beretik doazelako.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. Hasierako onespena ematea Uztargi haur eskolan jangela-zerbitzua emateagatiko prezio publikoa arautzen duen Ordenantzari, zeinak zera baitio:

3.3.- HAUR ESKOLETAKO JANGELA ZERBITZUA.

I.- XEDAPEN OROKORRA.

1. Artikulua.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 43.etik 50.era bitarteko artikuluetan xedatutakoari jarraiki, prezio publikoak ezarri eta exijituko dira Uztargi haur-eskolako jangelako zerbitzua emateagatik.

II.- APLIKAZIO EREMUA.

2. Artikulua.

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatzekoa izango da.

III.- SUBJEKTU PASIBOA.

3. Artikulua.

Derrigor ordaindu beharko dute jangela-zerbitzua ematea eskatzen duten familiek.

IV.- ORDAINTZEKO OBLIGAZIOA.

4. Artikulua.

Zerbitzua erabiltzen den une berean sortzen da ordaintzeko obligazioa.

V.- TARIFAK.

5. Artikulua.

2006/07 ikasturteko tarifa hileko 60,00 eurokoa izango da.



VI. KUDEAKETA ARAUAK

- 6.1. 0-1 urteko gelan, zerbitzua haurrak 7 hila betetzen dituen hasiko da kobratzen.
- 6.2. Ez kobratzeko arrazoi bakarra: zentroan behin-betiko baja emana izatea.
- 6.3. Ikasturtea hasi ondoren zerbitzuaz baliatu nahi izanez gero, ikasturtea amaiera arte alta ematen dutenek bakarrik egin ahal izango dute.
 2. Hartutako erabakiak jendaurrean 30 lagunez egongo dira. Epe horretan edonork erreklamazioak edo iradokizunak egin ahal izango ditu.
 3. Erabakia behin-betikoa bihurtuko da erreklamazioak egiteko garaian inork ez balu egingo.

9. Proposamena: Errenteriako Agustinak auzoko hainbat kaletan “kale-garbiketa eta hiri hondakinak jasotzeko zerbitzua” egiteagatiko kontratua handiagotzea.

2003ko ekainaren 19an sinatu zen hamar (10) urterako eta lehenbiziko urterako 2.125.743,81 euroz (BEZa barne) “Errenteriako Agustinak auzoko hainbat kaletan “kale-garbiketa eta hiri hondakinak jasotzeko zerbitzua” egiteko kontratua.

Hiri Mantentze Saileko arduradun Jose M^a Hoyos jaunak gaiari buruzko txostena egin du. Bertan, Agustinak auzoko hainbat kaleetako garbitasuna egiten zuen langile batek erretiroa hartu duelako, bidezkoa jo dugu goian adierazitako kontratua 43.109, 59 eurotan (BEZa barne) handiagotzea.

Kale Garbiketako delegatuak eginiko proposamena ikusi dute.

Halaber, Kontratazio eta Ondare Saileko arduradunak eginikoa.

Eta Lehendakaritza eta Barne Antolaketako batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. Handiagotzea “FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, SA”rekin “Errenteriako Agustinak auzoko hainbat kaletan “kale-garbiketa eta hiri hondakinak jasotzeko zerbitzua” egiteko kontratua. Gehitze hori dela-eta lehenengo urtean **43.109,59 euro (BEZa barne)** ordaindu beharko dira.

2. Esleipendunari eskatzea, jakinarazpena jaso ondorengo hamabost (15) egunetan, behin-betiko **1.724,38 €ko** bermea jartzeko.

3. Esleipendunari eskatzea halaber, jakinarazpena jaso ondorengo hogeita hamar (30) egunetan Udalera etortzeko kontratua sinatzeara.

Jarraian,

Gai Zerrendatik kanpo eta alde zuzenetik, aho batez, presazkoa aitortu ostean, ondorengo mozioak aztertu dituzte:



PSE-EE, EA, PP, EAJ-PNV eta EB-IUK izenpeturiko mozioa, Landarbaso aldean erraustegia jartzeari buruzkoa.

Ekainaren 22an Donostia-San Sebastianeko Udalbatzak erabaki zuen Igoiñ Azpi, Landarbaso kokatutako eremua, leku egokia dela PIGUGen hondakinak tratatzeko sistema integralean aurreikusitakoa kokatzeko.

Erakundeen arteko beharrezko errespetua dela eta, hasiera batean, ez dagokio gure Udalari beste hainbat udalerrik bere eskumenekoak diren gaien inguruan hartutako erabakiak ebaluatzea, baina, gure ustetan, erabaki hori ez da egokiena.

Gure ustez Landarbaso parajeak hainbat ezaugarri ditu, hala nola, ingurumen aldetik (Aiako Harria Natur Parkearen eta horri dagokion BIL-aren inguruan dago), eta paisaiaren aldetik (gizakiaren eragin txikiko eremua). Alde horietatik begiratuta zail egiten da ulertzea eremu horretan inolako azpiegitura eraikitzea. Are gehiago kontuan hartzen badugu paraje honek Errenteriako biztanleekiko izan duen harreman berezia; izan ere, historikoki harreman afektibo estua izan du, eta beraz, eremu horretan edozein jarduera aurrera eramatea herriko biztanle guztiek asko maite duten eremu bat errespetu gutxiarekin tratatzea suposatuko luke.

Hori dela eta, Errenteriako Udalari proposatzen diogu ondoko akordioa har dezan:

1. Eskatzea Donostia-San Sebastianeko Udalari berraztertzeke PIGRUGen hondakinak tratatzeko sistema integralean aurreikusitakoa kokatzeko Igoiñ Azpi izateko erabakia, gune horrek errenteriarrentzat ingurumen, kultura eta paisaiaren aldetik duen garrantziarengatik.
2. Eskatzea zerikusia duten administrazioei baldintzak betetzen direla bermatzeko, batez ere, ingurumen alorrekoak, proposatzen den kokapena edozein izanda ere.
3. Akordio honen berri ematea Donostia-San Sebastianeko Udalari, San Markos Mankomunitateari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, eta eskatzea zaborrak jartzeari buruzko informazio eta parte hartzea kanpainak abian jartzeko.

S.O.S. Añarbe, San Markos, Errenteria-Orereta Biziri keta Aralar alderdi politikoak izenpeturiko mozioa, Landarbaso aldean erraustegia jartzeari buruzkoa.

Sarrera.

Errenteriako herritarrok jabeturik gaude hiri hondakinek gaur egun suposatzen duten arazo larriaz. Alde batetik izugarri gehitzen ari direlako, eta bestetik, horien tratamenduak ekar ditzakeen ondorioengatik. Ildo horri jarraiki, gure kezka adierazi nahi dugu, gure haserrea eta egonezina Donostiako Udalak erraustegia Landarbaso aldean jartzeko ekainaren 22an hartutako erabakiarena urtean.

Beharrezkoa da gogoraraztea Landarbaso natura, historia eta kultura aldetik aberastasun handiko ingurua dela. Gure ustez erraustegia paraje horretan, Aiako Harria natur parkearen erdian, ipintzea astakeri galanta da; eskualdeko biztanleei ura hornitzen dion Añarbeko urtegitik 2 km. baino gutxiagora. Hori horrela, indartsu azpimarratu nahi dugu erraustegiak osasunarekiko eta ingurunearekiko dituen ondorio larriak. Besteak beste, lurra, airea eta ura kutsatzen ditu; oso hondakin arriskutsu toxikoak sortzen ditu; birziklapenaren aurkakoa da; mutazioak eragiten ditu eta umekietan malformazioak eragiten ditu; minbizia, etab. sortzeko posibilitateak gehitzen ditu.



Bestalde, Ingurumena Babesteko Lege Orokorrak, Eusko Legebiltzarrak 1998an onartua, ingurumenarekin zerikusia duten erabaki politikoak kohesio eta jendeak parte hartuz hartu behar direla ezartzen du. Aitzitik, Foru Aldundiak, San Markos Mankomunitateak eta bertan dauden udalerriek aurkako bidetik jo dute. Hots: inposaketa eta iritzi publikoari informazioa kendu eta maneatu eta entzungor egon dira herritarren eskariaren aurrean.

Hori guztiagatik, S.O.S. AÑARBE, SAN MARKOS ETA ERRENTERIA-ORERETA BIZIRIK PLATAFORMEK eta ARALAR alderdi politikoak Errenteriako Udalbatzari proposatzen die ondorengo erabakiak har ditzan:

1. Errenteriako Udala erraustegia Landarbason jartzeko proiektuaren aurka dago erabat.
2. Errenteriako Udalak biztanlearen osasuna eta ingurumenarentzat egokiagoak diren hondakin tratamendu alternatiboak sustatuko ditu, esaterako, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETARAKO 2005-2020 GIDA PLANAK aurreikusten dituenak, erraustegiaren aurkako Gipuzkoako Plataformen Koordinatzaileak egina.
3. Errenteriako Udalak bideak irekiko ditu afera honi buruz eztabaida sozial zabala eman dadin. Eztabaida honen bidez herritar orok izango luke hiri hondakinak kudeatzeko dauden alternatiba ezberdinak ezagutu, alderatu eta baloratzeko modua. Azken finean, Errenteriako herritarrei herri-kontsulta eginez amaituko litzatekeen prozesua.
4. Udalak erabakiaren berri emango die San Markos Mankomunitateari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Jarraian, mintzatu dira:

* Oiarbide jaunak (EA) adierazi du Garapen Iraunkorreko diputatu arduradun gisa hartuta dauzkan konpromisoak direla-eta ez duela esku hartuko gai honen inguruan egingo diren bozketa eta eztabaidan, hots, hondakinak errausteari dagokion guztian. Horrela, diputatu gisa, duela bi urte arduradun izan zen Gipuzkoan erraustegiak kokatzeko toki posibleen azterlana egin zedin. Bertan 20 kokaleku posiblea tera ziren, eta horietatik 8 hautatu ziren. Azterlan horretan Landarbaso ez zen kokaleku posibletzat jo, ezta kontuan hartzeko lekua izan zitekeenik ere. Jadanik ezaguna den prozesu osoaren ostean, denon harridurarako Donostiako, Udalaren proposamena iritsi da. Eta berak publikoki, Departamenduko diputatu modura, ez duela ezer esango ahalik proposamen edukiaren alde edo aurkako txostenik ez duen bitartean, adierazi du. Zentzu horretan, bezperan, goizez, Gipuzkoako azpi mankomunitateetako ordezkariekin bilera bat eduk izuen, eta bertan, bi erabaki hartu zituzte: bat, bere garaian Gipuzkoako kokapen azterlana egin zuen taldeari eskatzea azter dezan Donostiako Udalak eginiko proposamena. Eta bi, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari eskatzea –azken finean honi baitagokio kokapen proposamena onartzea edo ez– aurretiko txosten bat egin dezan, izan ere, berez bere Jarrera hartzeko bi urteko epea izango bazukeen ere, berehala egin dezala eskatu, eta modu horretan, ekidingo bailukete edozein eztabaida ea kokapena bidezkoa den edo ez ikusteko. Beraz, bada, bi txosten horien zain dagoenez, eta publikoki konpromisoa hartu duenez txosten horiek izan arte ez duela adierazpen publikorik egingo, ez du hemen eztabaidan esku hartuko, eta ondorioz, punturen bat bozkatzan bada, bera abstenitu egingo



da. Eta gai hauei buruzko EAren iritzia eta jarrera udalbatzarkide den Joxe M^a Burgos jaunak aurkeztuko duela, gaineratu du.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, EAko eledunaren jarrera oso bidezkoa iruditzen zaio, eta uste du gainontzeko udalbatzarkideek halaxe jasoko dutela. Eta osoko bilkura honetara jende asko etorri denez, jakinarazi du lehenik alderdi politikoei hitz egiten dutela eta, ondoren, jendarteko norbaitek hitz eskatzen badu, era berean hitz egiteko modua izango duela.

* Legorburu jaunak (EB-IU) adierazi duenez, lehenik eta behin osoko bilkurara etorri diren herritarrei jakinarazi nahi die gatazkak hasi besterik ez duela egin; bide luzeko lasterketa dela, eta kontua ez dela hasiera laster asko egitea, baizik eta denak amaierara iritea. Bigarrenik, alderdi politikoei esan nahi die: zeinen diferente jarduten den boterean dagoen!. Esaterako, bat boterean ez dagoenean, alderdi orok boterean daudenei gatazkei zer-nolako irtenbidea eman esaten die. Horrela, Zapatero jaunari –bera delako boterea duena- denek esaten diete nola konponduko litzatekeen euskal arazoa: mahai baten inguruan hitz eginez. Hemen, areto honetan, dio, beste arazo bat dago, hain zuzen Gipuzkoako hondakinak nola kudeatu. Eta boterean ez daudenak boterea dutenei, Oiarbide jauna, arazoak mahai baten inguruan eta hitz eginez konpontzen direla. Erantzuna, aitzitik, ezetz da. Erabakia hartuta dagoela eta Gipuzkoan nahi ala ez erraustegi bat jarriko dela. Bere aburuz gatazkak ez dira horrela konpontzen, aitzitik areagotu egiten dira. Horregatik, EB-IUk plataformek eta Aralarrek aurkezturiko mozioaren alde bozkatuko du, gaineratu du.

* Peralta andreak (PP) adierazi duenez, kontu jakina da zein den bere alderdiaren jarrera, eta ez hori ez dute aldatu ezer. Euren ustez toki hau ez da egokia erraustegi bat ipintzeko, eta beraz, argi eta garbi dago euren jarrera erraustegia parke natural batean, Añarbeko Uren inguruan, megalitiko parke bat dagoen tokian jartzearen aurkakoa dela. Berak iturri oneko albisteen arabera, Gipuzkoako PSOEko presidente den Miguel Buen jaunak lagun bati esan diolako, toki hori ekoparkea bihurtu nahi dute. Bere hitzetan, ekoparkeak ekologikoa esan nahi du, eta erraustegi batek ekologikotik ezer gutxi du. Beraz, bada, euren alderdia erraustegiaren aurkako plataformako herritarren alde azalduko da, hots, toki horretan erraustegia jartzearen aurka.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi duenez, aurkezturiko mozioa aitatu aurretik, Legorburu jaunari (EB-IU) zera esan nahi dio: gaur Ezker Batuaren izenean hitz egin duela eta, erraustegi bat hartzeko erabakiaren inguruan alderdiek GHHKPOn jarrera bat hartu zutela, alabaina ahaztu egiten zaio erakunde hau gobernatzen, alderdi sozialistarekin batera, EB dela, eta beraz, zerbait esateko baldin badu, gobernu-kideari esateko eta ez errietarik egiteko koalizioko lagunari. Herritarrek aurkezturiko mozioari dagokionez, bere alderdia, prentsaurrekoan esan zuten moduan, erraustegia Landarbason jartzearen aurka daude bi arrazoiengatik: lehengoa, toki horrek dauzkan balio paisajistikoa eta naturalagatik, izan ere, Aiako Harria Parke Naturalaren atarian dago. Hainbat txostenetan errekonozitzen den moduan, begitazio interesgarria du; bertan daude Landarbasoko haitzuloak, eta gainera, Errenteriako herriarentzat garrantzi handia duten aisialdiko guneak daude. Era berean, arkeologia aldetik gauza interesgarriak ditu; berak dakien heinean, Igoi-Akola aldean sei edo zazpi trikuharri daude: Eurek erabat aurka daude, eta iruditzen zaie erabat arbuigarria dela toki horretan erraustegi bat, edo haren orde, hondakinak kudeatzeko beste edozein sistema ipintzea. Euren ustez, duela denbora gutxira arte, uste du otsaileraino, toki horretan gaur egun erraustegia jartzea proposatzen duen Odon Elorza jaunak, bere Plan Orokorrean, Landarbaso aldeari, lehen aitatu dituen arrazoi guztiengatik, babes berezi bat eman behar zitzaiola defendatzen



zuen. Aitzitik, orain, orduko jarreratik oso urruti, Donostiako Udalbatzak –eskumena duena- ekainaren 22an eginiko bilkuran, Landarbasoko inguru hori erraustegia jartzeko toki egokitzat jo du. Bakoitzak nahi duen ondorioak aterako ditu, baina bere alderdiak ez du horrelako jarrera aldaketarik egin. Bigarrenik, kokapenaren aurka dauden beste arrazoia zera da: uste dute Errenteriak probintziarekiko eta mankomunitatearekiko solidaritate-kuota beteta daukala hondakin-kudeaketari dagokionez. Ez erraustegia, ez konpostatzeko instalakuntzarik, ezta ezer ere, gaineratu du. Lau hamarkadaz ederki beteta dauka berari dagokiona!. Hauexek dira, lehenengo puntuan -balio naturala eta errenteriarrek toki horrekin duten loturagatik (nahiz eta ez herriko eremuen barruan)- adierazitako arrazoiekin batera, Donostiako Udalak proposaturiko lekuaren aurka bozkatzeko dituzten arrazoiak. Horrez gain, badaude atentzioa ematen dien beste gauzak ere, esaterako, erantzukizunik gabe jardutea iruditzen zaie txosten teknikoak eta ingurugiroari buruzkoak jakin gabe kontu hau bozkatzea. Horrela, gaur gaurkoz ez dakite nondik egingo dituzten Bertara joateko sarbideak. Toki batetik zein bestetik egingo direla hitz egiten ari dira, baina oraindik ez dago garbi. Argi eta garbi adierazi nahi du Donostiako EAJK Odon Elorzaren aldeko botoa eman duela, eta berak esan behar du, Donostiako lagunek prentsaren bidez egin duten moduan, Donostiako herritarren interesak defendatzen dituztela. Eta eurek hemen, hemengo herritarren interesak defendatzen dituzte. Euren aburuz, Elortzaren eta Donostiako Udalaren jarrera insolidarioa da, izan ere, ez baitzuen zalantzarik eduki txalotzeko erraustegia Urnietan jartzeko asmoa zegoenean. Alabaina, gero, logikari jarraiki erraustegiak Donostian kokatua egon behar zuela erabaki zenean, konturatu zen berari tokatuko zitzaiola eta hondakinak tratatzeko beste sistemen defendatzaile sutsua bihurtu zen. Orain, euren eremuetan kokatzea proposatzen dute, baina ondorioak beste herriek jasoko dituzte, eta horietako bat Errenteria da, dagoeneko nahikoa jasan duena. Eta berriro dio, aurka daudela toki horretan erraustegia zein bestelako edozein instalakuntza jartzeko, nahiz eta mozioarekin ez datozen bat erraustegiari dagokionean.

* Burgos jaunak (EA) adierazi duenez, Udalbatzari plataformek eta Aralarrek alde batetik, eta alderdi politikoek bestetik, aurkezturiko bi mozioen inguruan EAK bietarako eztabaida bat bakarra egitea nahiko luke. Hots, ez Plan Integralari (GHHKPO) buruzko eztabaida, izan ere, lehen aitatu den moduan, eztabaida hori jadanik eman baitzen Udal honetan, Foru Aldundian eta Mankomunitateetan. GHHKPO onartuta dago. Horrela, zenbaitek esaten dutenaren aurka, eta horrelaxe adierazi da osoko bilkura honetan, ez dute ahaztu behar hainbat mankomunitate, udal, Foru Aldundi, etab.ek onartu aurretik, GHHKPO egiten ehun erakunde, elkarte eta entitateek baino gehiagok esku hartu zutela eta euren ekarpenak egin zituztela bere garaian. Eta parte hartze hori "EASW tailerra"ren arabera egin zen, Europar Batasunak homologaturiko sistema da. Beraz, bada, eurek eztabaida Donostiako Udalak pasa den ekainaren 22an erraustegia jartzeko egin eta onarturiko proposamenaren inguruan bakarrik ematea nahi dute, hau da, Donostiako dermioletan dagoen Landarbasoko Igoin Azpi deituriko lekua egokia den edo ez ikusteko, beste herri batzuekin muga egiten duena eta Donostia erdi aldetik nahiko urrun dagoena. Erabat gaitzesgarria iruditzen zaie une hauetan Gipuzkoako hondakinen heren bat sortzen duenak, hondakin horiek kudeatu eta desegiteko erantzukizuna hartu beharrean, berriro ere, hainbat urtetan egin duen moduan, inguruko herriei eskualdatzea. Zentzu horretan, Odon Elorza jaunak Donostia hiriaz ikuspen elitista izaten jarraitzen du. Hots, onartzen du Kurtsaala Zurriolan egin dadin eta gainontzeko azpiegitura turistikoak Donostiara irits daitezen, baina erraustegia eta hondakinak kudeatzeko gainontzeko sistema hiritik at gera daitezen nahi du, kasu honetan Landarbasoan. Atentzioa handia ematen die, eta beraz, onartezina iruditzen zaie, Donostiako Udalbatzak proposaturiko lekua. Era berean, atentzioa ematen die proposamen hau ez egoteak Aldundiak egindako azterlanean jasotzen ziren azken hamar kokapen posibleen artean, ezta ere bideragarritasun plana ikusteko



lehendabiziko mahai ganean jarri ziren lehenengo hogeiren artean ere. Eurentzat oso adierazgarria da Landarbaso ez azaltzea azterlan horietako bakar batean ere. Horrez gain, atzera egiten badute, denei gogorarazi nahi diete, memoria historiakoa ez delako galdu behar, Igoi Azpi hondakin mota bakar bat ere eramateko leku desegokitzat jo zuela egun Donostiako Udaleko Hirigintzako zinegotzia den Jorge Letamendia jaunak Ingurumen diputatu eginkizunak egiten zituen garaian. Azterlan hartan ez zen jasotzen gaur egun proposatzen den lekua. Garai hartan kokapen hori errefusatzeko arrazoiak argi eta garbi zeuden. Eta horiek, euren ustez, indarrean dira, eta horiek zeintzuk diren errenteriarrentzat oso garbi daude. Euren ustez, Landarbasok ingurumen, kultura eta paisaiaren inguruko ezaugarriak ditu eta horiek argi eta garbi zehaztea gustatuko litzaieke. Horrela, ingurumenaren arloan Aiako Harria Parke Naturalaren bazterrean kokaturik dago, eta parkea LIC (interés komuneko lekua) delakoaren barruan sartuta dago, hots, Europar Batasuneko 2000 natura sarearen barruan. Kultura ezaugarriez hitz egiten badute, berriz, Igoi Akola gune megalitiko hitz egiten egongo liriateke, trikuharri eta eskultura asko dauden lekuaz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 137/03 dekretu bidez monumentu-baltzu kategoriarekin kultur ondaretzat jotzen dena. Paisaiari begiratzen badiote, aldiz, izugarriko begitazioz, hariztegiz eta eraikin bakan batzuz hitzen egin beharko lukete, hots, oso jende gutxi bizi den lekuaz. Alabaina, ezin dute ahaztu, ezaugarrien barruan, inguru horretan dauden errekek, Landarbasoko erreka, erreka horren eta inguruko bazterretan dagoen fauna, besteak beste, bisoi europarra eta desman piriniarra. Haizpitarteko haitz zuloak, eta batez ere errenteriarrentzat –baita inguruko herritarrentzat- aisialdiko gune hurbila. Listorreta errenteriarren lasaialdirako lekua da, beti herri honi lotuta egon dena. Horrez gain, herri honetako biztanleentzat hain garrantzitsuak eta ezagunak ziren Arrazoi hauek duela gutxira arte oso esanguratsuak eta pisu handikoak ziren Donostiako Udalarentzat. Hain zuten pisu handia, non urte horretan bertan, Hiria Antolatze Plan Orokorra berrikusteko aurrerakinean, 2006ko otsailaren 14ko udal ebazpen bat dela medio, eta lehen adierazitako zirkunstantzi partikular eta orokorrek, Donostiako Udala eraman zuen toki hori Aiako Harria Parke Naturean sar zedin proposatzera (txostenean azaltzen den moduan), eta ez hori bakarrik, baita errekek eta Landarbaso gaina babestuak gera daitezen eskatzera. Horrek guztiak, lehen esan bezala, atentzioa handia eman die. Orduan zera galdetzen dute: nola liteke Elorza jauna, duela hil batzuk hainbesteko balioa zuenak, orain toki egokia izatea erraustegi bat ipintzeko, hondakinak tratatzeko edo ekoparke bat jartzeko? Era berean, esan behar dute Donostiako Udalak planteatutako kokapen-proposamenak ez duela bere aldeko inolako txosten teknikorik, ez ingurumenari buruzkorik, ezta azpiegitura aldetik Igoi Azpi ontzat jotzen duen bakar bat ere. Horregatik, adierazitako guztiagatik, eta Errenteriako Udaleko gainontzeko alderdi politikoetako lagunek azaldutakoarekin bat etorritik, Eusko Alkartasunak erabat errefusatu du Donostiako Udalak proposaturiko kokalekua eta, S.O.S. Añarbe, San Markos, Errenteria-Orereta Bizirik plataformek eta Aralar alderdi politikoak aurkezturiko mozioan jasotzen den lehenengo puntuarekin bat egiten du. Mozioak hauxe dio: “Errenteriako Udalak Landarbaso erraustegia kokatzeko proiektuaren aurka dago erabat”. Aitzitik, Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak aurkezturiko mozioarekin bat egiten du. Euren ustez, mozio honek ibilbide zabalagoa eskaintzen du, eta bertan Donostiako Udalar jarrera berrikusi eta kokapen berri bat bilatzeko eskatzen zaio.

* Golmayo jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, euren alderdia aitatu diren hainbat arrazoi kultural, paisajistako, etab.engatik erraustegia



Landarbason jartzearen aurkako jarrera hartuko du. Eta horrexegatik, bere alderdi politikoak mozio bat aurkeztu du, gainontzeko alderdi politikoei bermatu dutena hain zuzen ere.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, mintzatu diren guztiak kontuan hartuta, bere ustez, hemen hainbat gai ari dira azaltzen denbora berean. Berak dioenez, argi dago denek errefusatzen dutela Donostiako Udalak erraustegia jartzeko adierazitako lekua. Berak gehiago dio, toki hori ez da bakarrik desegokia erraustegi bat jartzeko, baizik eta beretzat ez da egokia beste edozein motatako industria instalakuntza bertan jartzeko. Beretzat ez da egokia biolehorketa, ezta biometanizatzeoko lekua, ala nola konposta egitekoa edota edozein antzeko gauza jartzeko. Toki natural bat da, babesturikoa. Halaxe izaten jarraitu behar duena, hots, erreserba bat eta zaindu beharreko gunea. Era berean, berak uste du alderdi guztiek sinaturiko mozioa bestea baino malguagoa dela. Aztertua, erkatua, eta laburbidurik, zera dio: toki horretan erraustegia jartzearen aurka daudela. Gehiago ere esaten dute, eurek GHHKPO ez daitekeela gutxietsi diote, ez daiteke esan horkoa norbaitek inposaturikoa dela. GHHKPO gutxienez bi urtez eztabaidatu zuten. Hainbat deialdi, parte-hartze, etab.ekin erakunde askok parte hartu zuten herri guztietan. Bere garaian luze eta zabal eztabaidatutako plana izan zen. Bere aburuz, orain eman nahi den eztabaida faltsua da, izan ere, prentsan azaltzen den moduan, alde batetik erraustegiaren aldekoak

jarri nahi dituzte, eta bestetik, erraustegiaren aurka daudenak. Bere irudiko, hori manikeo eta interesaturiko eztabaida da, izan ere, berak behintzat Udalbatza honetako inori ez baitio entzun erraustegiaren alde dagoenik. Askozaz gehiago esaten da, eta horretaz guztiaz ez hitz egitea errealitatea faltsutzea da. Eurek lehenik eta behin ahalik eta zabor gutxien sortzearen alde daude; ahalik eta gehien birziklatzearen alde, egoskorak diren estatistikek eta errealitateak baieztatzen ari diren moduan. Ildo horri jarraiki, San Markos Mankomunitatea birziklatze kontuetan buru da beste Mankomunitateekin konparatzen badute, eta Mankomunitatearen barruan Errenteriak oso ohorezko lekua betetzen du. Herritarrek birziklatze afera honetan egotea nahi duten lekuan dago Errenteria, batz bestekoaren gainetik erraz. Ere berean, birziklatu ezin izan dena tratatzeko metodoren baten aldekoak dira, hau da, azken baten, ez dauden zabortegietara bota nahi ez dutena erre egin beharko dela esaten dute. Beretzat hortxe dago eztabaida, baina gaur Donostiako Udalak proposaturiko Landarbasoni buruzko irizpena eman behar dute. Horrez gain, alderdi sozialista eta bere idazkari nagusiak aitatuak izan direnez, berak esan nahi du martxoaren 16ko prentsak zera zioela: "PSEko gipuzkoar idazkari nagusiak eta Batzar Nagusietan alderdi honetako eledunak, Miguel Buenek, ohartarazi zuela Donostiako erraustegia Landarbaso aldean jartzearen aurka egingo zuela. Beste egunkari batek zera zioen: "PSEk Landarbason ez". Eta beste batek, berriz, zera zioen: "Bestalde, idazkariak uste du hondakinak tratatzeko arazoari irtenbidea bilatzeko bidea, Aldundia eta udala mintzatuz gero, aurkituko litzakeela. Alabaina ohartarazi zuen erabat gaitzesten zuela Landarbason erraustegia jartzeko proposamena". Beste prentsa-ohar bat aitatzuz amaituko du. Bertan zera zioen: "PSEk Landarbason ez". Honekin azpimarratu nahi du, hemen argitzen ari dena berak esandakoa dela, eta inolaz ere ez oportunitate-kontuak. Beretzat bi gauza ezberdin dira, izan ere, Udalbatza honetako inor ez baitago alde. Gainera, ahaleginak egingo dituzte instalakuntza hori leku horretan jar ez dadin. Era berean, esan nahi du, errespetagarria den guztia errespetatu behar dela. Hots: iritzi-adierazpena. Izan ere, bai baitira hor barrena prestutasun-presuntzioa errespetatzen ez duten kartelak, iragarkiak eta abisuak. Horren adibidetzat eskuan duen orri bat erakutsi du. Bertan Luis M^a Oiarbide eta bera aitatzuten dira. Bertan, herritarren osasunaren gainetik interes ekonomikoak dituztela esaten da. Berak dioenez, ez daude horren alde eta ez dute gai horrekin zerikusirik duen inolako negoziarik. Beraz, bada, prestutasuna eta egiazkotasuna eskatzen ditu.



* Maestro jaunak (EB-IU) adierazi duenez, mintzatzen bada, EAJko eledunak esan duena esan duelako da. EAJko ordezkariak esan du EBk ozenki esan beharko lukeela – alderdi sozialistarekin gobernatzen ari direnez- erraustegiaren aferarekin ez daudela ados. EAJko ordezkariak badaki, bertan dauden guztiek bezalaxe, Udalean alderdi Sozialistarekin duten akordioan, inon ez dela azaltzen bi alderdiek erraustegiaren aldeko apustua egiten dutenik. Bestalde, bere irudiko, nahiko garbi dago EB-IU-Berdeak erraustegiari ezetz esaten diola. Eta hori batez ere bi arrazoiengatik da: Bat, hondakinak erraustuz nahiko argindar portzentaje gutxi berreskuratzen delako, gero leku horretan bertan erregai gisa erabiltzeko. Gai horren inguruan esan gura du zenbait teknikarik adierazi duela hondakinak desegiteko kontsumitzen den energia bertan sortzen dena baino gehiago izaten dela. Hau esaten du, duela gutxi prentsan azaldu zelako. Eta bi, - beretzat garrantzitsuena- erraustegia oraindik jarduera arriskutsua da, teknikariek ere halaxe ohartarazten dute. Batez ere oraindik argitu gabe dago erraustegiak berak sortzen dituen hondakinen kudeaketa nola egin eta osasunari buruz izan ditzakeen ondorioak. Berak uler dezake beste alderdiak iritzi horrekin bat ez etortzea, eta jakina, hori errespetatu behar da. Errespetatzeko eskatzen du, eta iritzia ematerakoan besteak ez mintzeko eskatzen du. Beste erakunde batzuk gobernatzen dituzten alderdiek zaborrak kudeatzeko plan egokia erraustegia dela uste dute. Eta erabiltzen duten argudioetako bat erraustegia zuzena, garbia eta nahikoa merkea dena da. Segurtasunari dagokionez, berriz, osasunarentzat apenas duela arriskurik esaten da, edo ibilgailuek erretzen duten erregaiek edo gure inguruko beste edozein industria-jarduerak osasunarentzat duen arrisku bera duela esaten da. Bermakorra dela, eta horren adibide gisa, Vienan eta Paris erdian erraustegiak daudela esaten da. Orduan berak zera dio: osasunarentzat arriskurik gabeko jarduera baldin bada, zergatik aukeratzen da Landarbaso? Zergatik ez da aukeratzen edozein industriagune? Berak, hondakinak desegiteko erraustegia metodotzat hartzearekin ados ez egotez aparte, adierazi diren arrazoi guztiengatik, uste du Landarbaso aukeratzea are okerragoa dela. Izan ere, gogoratu behar da, toki hori, Plan Orokorren Aurrerakinean, oraindik Aiako Harria Parke Naturelean sartzeko proposamen gisa jasota dagoela. Lehen aitatu diren bezala, kultur inguruko arrazoiak daude (trikuharriak, megalitiko estazioak, etab.) eta paisaiaren ingurukoak jende gutxi bizi den lekuan. Eta hori bezain garrantzitsua da, erreteriarrentzat eta inguruko herri zenbaitetakoentzat aisialdirako lekua dela. Bere ustez nahasten dira kokaleku posible bat arazo ekologiko edo ingurumenekoekin. Horrela, Donostiako Udalak aurkezturiko aurretostenetan zera esaten da: beharrezkoa izango litzakeela urbanizatzea gutxienez 6 hektareako eremu bat. Berak urbanizatu esaten duenean, lautzeaz ari da. Eta hemengo edonork badaki paraje horretan ez dela existitzen sei hektareako lur zelairik. Azken finean, toki hori urbanizatzeak ingurumen arazo larriak sortuko lituzke. Eta beretzat oraindik garrantzia gehiago daukate paraje horretara heltzeko sarbideek. Txostenean bertan adierazten den beste gauza batek are gehiago harritu du, izan ere, txostenean bertan, Donostiako Udalak egiten dituen bi proposamenetariko bat Landarbasora doan errepidea erabiltzekoa da, zeina Errenteriako Udalak konpondua baita, Foru Aldundiaren eta udal zenbaiten laguntzarekin. Donostiako Udalarik, nahiz eta laguntzeko eskatu zitzaion, ez zuen egin, ez zuen ordaindu nahi izan tokatzen zitzaion %5a, eta orain sarbide bat errepide horretatik izatea nahi du, galdetu du. Horrez gain, errepide hori Donostiako bigarren saihesbidearekin lotuta egongo litzateke. Gai honi buruz, berak esan nahi du Errenteriako Udalak, eraikitzen ari duen Egiburu industrialde indartsuari irtenbide bat bilatzeko, Zabalbide aldean lotune bat egitea eskatu zuela eta erabat ukatu ziotela, beti ere horretarako beste lotunekiko segurtasun distantziak adieraziz. Orduan berak zera galdetzen du: ea nola esplikatuko duten hor lotune bat egiteko arrazoia? Guk, hura ezinezkoa izan zelako, gure bide propioak egin eta trafiko astuna herriaren erdialdetik desbideratzeko diru bat jaso genuen.



Hots, hiru finantziario ezberdin izan genituen. Berak ez du ulertzen nola esan daitekeen proposamen hau bidezkoa dela, besteak beste, oso litekeen kontua baita sarbideak erraustegia bera egitea baino gehiago kostatzea. Era berean, aitatu nahi du han sortuko den energia-indarra aprobetxatzearen jarri beharko diren elektrizitate-dorreek sor lezaketen ingurumen inpaktua. Azken finean, bere alderdiak uste du Landarbaso ez dela leku aproposa erraustegi bat jartzeko, batez ere kontua atzera ezina gerta litekeelako. Bere ustez errenteriarrek eta gipuzkoar gizarteak asko ordaindu beharko luke, eta kontua dagokionak berrikusi beharko lukeela uste dute. Halaber, esan nahi du hemen denek esan ziotela Donostiako Udalarari erraustegia jartzeko lekua proposatzeko, eta eurek fede... txarrarekin, -ez daki nola definitu- Landarbasorekin erantzun dute. Izan litekeen lekurik okerreanean. Orduan, orain berak zera galdetzen du: Nola jardungo du Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko plana egiteko erantzukizuna duenak? Zer esango du, Donostiak hori da kokatzeko lekua esan diodanean? Zer esango dute beste erakundeek? "hori leku egokia da" edo egoera berrikusi ahalko dute? Berak bilkura honetan galdera horixe egiten du ozenki. Eta eskertuko luke norbaitek erantzungo balio.

* Peralta andreak (PP) adierazi duenez, berak mozioak banan banan eztabaidatzen ari zirela uste zuen. Horrela, bere aurrean du alderdiek aurkezturikoa, eta argi eta garbi adierazi nahi du bigarren puntua nahasi xamarra dela. Izan ere, zera baitio: "administrazioei dagokionez eskatzea proposatu litekeen edozein kokapen-proposamenean baldintza guztiak beteko dituela ziurta daitezen, bereziki ingurumenari buruzkoak". Eta berak zera dio: bidezko administrazioek Landarbaso dela leku egokia esaten badute? Halaber alkateari esan nahi dio, Udal honetako arduraduna denez, herritarren interesak zaindu behar dituela. Era berean, esan behar du Buen jaunak esandakoa, ekoparke bat nahi zuela alegia, kuestionatu egin duela. Eta berak esan diezaioke ekainaren 28ko osoko bilkuran egon zelako. Han, bere lagun bati, ekoparkea egiteko proposamena egin zion. Beraz, Alkate jaunak aitatu dituen martxo edo apirilko deklarazioen arabera, ez dago ekoparke batentzako lekurik. Zer esan nahi du? Ekoparke batera eramango gaituela nola birziklatzen, nola egiten den konposta, etab. ikustera? Berak toki hori ere ez dela egokia esaten jarraitzen du eta Alkateak herritarren interesak zaindu behar dituela. Horregatik, uste du Donostiako Alkatearekin ados jarri beharko zukeela eta jendea ez zorabiatu. Bere irudiko herri hau Eskuzabalegia izan da, besteak beste, gauza guztiek muga bat dutelako eta Beraun aldean ezin zelako arnasa hartu ere egin. Beraz, bada, ez ekoparke, ez erraustegia, ezta ezer ere, are gutxiago leku horretan. Era berean, esan gura du Irungoak pozik xoratzen daudela, izan ere, erraustegia Landarbasoan ipintzen badute, Irungo eta gainontzeko herrietako hondakin guztiak horra ekarriko baitituzte, eta hori ekologia aldetik desastre handia izango litzateke. Ondorioz, bere alderdia parke natural horretan erraustegia bat edo hiri-hondakinak tratatzeko beste edozein sistema jartzearen aurka dago.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez, oso ondo iruditzen zaiola, nahiz eta erredundanteak izaten hasi direla pentsatzen duen. Mizioaren bigarren puntuak, Peralta andreak (PP) oraintxe bertan irakurri duen moduan, zera esaten du argi eta garbi: "administrazioei dagokionez eskatzea proposatu litekeen edozein kokapen-proposamenean baldintza guztiak beteko dituela ziurta daitezen, bereziki ingurumenari buruzkoak". Bere aburuz, hori ez da, inola ere, kontraesankorra, behin eta berriro Landarbasoan kokatzearen aurka esan dutenarekin. Are gehiago, Landarbasoan ez jartzeko exijitzez gainera, jartzen duten lekuan jartzeko baldintza guztiak bete beharko litzaketela, bereziki ingurumenari buruzkoak, esaten dute. Uste du gazteleraz irakurtzen dakitenek hori erraz aski uler dezaketela. Horrela, aldeko borondateak batzeko desioarekin bestelako aipamenei ez die kasurik egingo, alabaina uste du PPko eledunak argi eduki behar duela Alkate honek ahaleginak egiten dituela herritarren interesak defendatzeko. Bere



aburuz, hori erakusten duten nahiko adierazpen daude, eta etorkizunean halaxe izatea itxaroten du.

* Ondoren, Aralarren izenean jendartean zegoen pertsona bat mintzatu da. Berak dioenez, plataformek eta eurek aurkezturiko mozioa oso-osorik onartzen dute, besteak beste, erraustegia Landarbason jartzearen aurka daudelako. Bestalde, ez dute uste erraustegia denik Gipuzkoako hiri hondakin solidoak tratatzeko sistemarik egokiena. Ez dute erraustegiari nahi hemen eta ezta Gipuzkoako beste leku bakar batean ere. Bigarrenik, gaur hemen Udaleko alderdien eledun ezberdinen mintzaldiak entzunda gero, sekulan baino argiago geratu zaie zinegotzi gehienak egunak joan ahala herritarrengandik urrutiago daudela. Hau esan badu, lehenik, Oiarbide jaunaren (EA) mintzaldia du gogoan. Beretzat sinesgaitza da, bere lagunekin batera eta hemen gauden herritarrekin, ez eztabaidatu nahi izatea, eta bere iritzia ez ematea. Horrela, Oiarbide jauna, hemen mintzatu eta bere iritzia eman gabe geratu liteke, baina herritarrek ez dira tontoak eta prentsa irakurtzen dute. Eta hor Oiarbide jaunak zera esan zuen: "Landarbason erraustegia jartzeko Elorza jaunak eginiko proposamenak baldintza teknikoak betetzen zituela". "Aldundiko bera buru den Sailak ez zuela trabarik ipiniko". Orduan, mesedez, ez ezazu esan planteamendu hori ez dela egokiena, hain zuzen komunikabide guztietan zer esan zenuen irakurri eta entzun dugulako, esan dio. Jarraian, Oiarbide jaunari ea zergatik dioten eztabaidari hainbesteko beldurra galdetu dio. Izan ere, Oiarbide jaunak eta bere alderdian hain garbi badute erraustegia dela sistemarik hoberena hiri-hondakinak kudeatzeko, zergatik ez zaio herriari kontsultatzen behingoz? Zergatik ez da Gipuzkoan herri kontsulta bat egiten, Aralar edo Ezker Batuak Batzar Nagusietan eskatu duten bezala? Bertan, EAk bere jarrera defendatzeko aukera izango du, eta jarrera hori hain ona bada, zergatik ez dute herritarrek defendatuko?. Aralar herri-kontsulta egitearen aldekoa da, eta egitea nahi du, eta Oiarbide jaunari eskatzen diete balientea izateko, eta Gipuzkoan deia egiteko. Aralarrek onartuko du herritarren gehiengoak esaten duena. Aitzitik, zuk onartuko al zenuke Gipuzkoar gehienek erraustegiari ezetz esango baliete, galdetu du. Horixe da kontua, gaineratu du. Horrezaz gain, gaur hemen Oiarbide jaunak berriro gezurra esan du, besteak beste, herri honetako herritarrekin bilera egin duelako eta bertan behin eta berriz esan die Errenterian eta inguruetan ez dela erraustegiari egingo. Bestalde, Alkate jaunari (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) zera esan nahi zioten: ez jarraitzeko Oiarbide jaunaren ibilbidetik eta eztabaidatzeko prest egoteko. Aralarrek publikoki proposamen bat egin dio mahai bat eratzeko herrian, alderdi politikoen, auzo elkarteekin, erraustegiaren aurkako plataformekin, hondakindegia ixteko plataformekin. Herrian eztabaida egiteko, ondoren herri-kontsulta batekin bukatzeko. Eurek prest daude Alkatearekin bilera egiteko eta euren proposamena sakonago esplikatzen. Euren ustez, eledun gehienek gaur hemen argazkia bilatu nahi dute Landarbason erraustegia errefusatzeko, alabaina herritarrei bizkarra ematen diete, izan ere, herriak erraustegia ez Landarbason ezta beste inon egitea eskatzen baitu. Amaitzeko zera eskatu nahi die alderdi sozialistako, EAJko, EAKo, PPko, Ezker Batuko eta Aukerako eledunei, ala nola erraustegiaren aurkako, San Markos Hondakindegiko eta Auzo Elkarteetako eledun posiblei: gaur osoko bilkura honetan publikoki adierazteko Aralarrek hondakinak kudeatzeari buruz eztabaida mahai batean eman dadin eginiko proposamenaren inguruan zer pentsatzen duten.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez, zenbaitek pena ematen diela, izan ere, batzuk seriozki kontu honetan lanean ari diren bitartean, horrelako gai garrantzitsu baten aurrean bilatzen duten gauza bakarra txaloa delako. Horrela, hemen ez dela eztabaidatzen esatea, zer da bada egiten ari direna, galdetu du. Zer da, bada, aspaldiko hiletan egiten ari direna? Zorionez, bere ustez, eztabaidatzen ari



dira. Are gehiago, lehen GHHKPO aitatu da, eta esan behar du bi urtez aritu dela hori eztabaidatzen; Mankomunitateko herri guztietara eraman dela gai hori, eta, ez mahai bat bakarrik, baizik eta mahai asko egon direla gai horren inguruan, eta eurek ere eztabaidatzen jarraitu nahi dute. Halere, berririo dio, demagogoak ez izateko, izan ere, herri-galdeketa egin dezakete, baina halaber egin baitzezaketan beste bat lanera ez etortzeko erabakitzearen. Aretoan iskanbila handia sortu ondoren, zera esan du: ardurarekin jarduteko ahaleginak egin behar dituztela zertaz hitz egiten ari diren esateko, eta ez daitekeela esan herri-galdeketa nahi dela bertan zer azaldu behar den esan gabe. Hots, baietz esatea nahi bada, denek badakite zer nolako galdera egin behar den. Horretarako eta beste hainbat gauzetarako, nabarmendu du. Azkenik, gehitu nahi du Oiarbide jaunak argi eta garbi utzi duela, bi erakundeetako ordezkaria den heinean, ez zuela hitzik egingo. Halere, besteek egin duten moduan, bere alderdi politikoak adierazi du adierazi beharrekoa. Beraz, bere jarrera errespetatzeko eskatzen du, eta hori egiten du diputatu eta zinegotzi den heinean ez nahasteko bere egoera.

* Jendartean zegoen lagun batek euskaraz zera adierazi du: berak eskertzen duela, dirudienez, Landarbaso zer den denek baloratu dutelako. Alabaina, bere ustez, hor galdera bat geratzen da airean: zer gertatzen zaie hemendik 15 km-ra bizi diren alderdi guztietako alkate eta zinegotziei horren berri ez jakiteko? Beretzat hori galdera serioa da, eta hala, zalantzak ditu ez ote diren barre egiten ari, izan ere, Odon Elorzak garbi baitzekien Landarbaso zer zen, eta gauza bera EAJ eta EAKo zinegotziek ere. Zergatik planteatu dute, planteatu dutena? Galdera horri erantzun beharko diozue, ez? Galdetu du. Berak ez du uste tontoak direlako egin dutenik, ezta informazioa falta zaielako. Bere iritziz, ziria sartu nahi izan dute, besterik gabe. Bestalde, hemen eztabaida errebindikatzen da, parte-hartzea, baina berak uste du jendeak erantzuna eman duela. Izan ere, Urnietak ezetz esan zuen, atzera bota zuten lehenengo kokapena, eta han EAJko alkatea zen. Bigarrena, Aritzeta, Txingudi eta orain Landarbaso. Denak ezezkoak dira. Orduan zenbat ezezko gehiago behar dugu? Galdetu du. Pentsatu eta hasteko garbi eduki hemen eztabaida ez dagoela non kokatu, baizik eta hiri-hondakinak nola kudeatu, gaineratu du. Hemen ezin gara engainatzen ibili, besteak beste, erantzunak garbiak izan direlako. Egin diren kontsultak, -horietako zenbait legezkoak, esaterako, Zestoakoa- garbiak izan dira. Irunen egindakoak ere, %80 eta gehiagok ezetz esan zuen. Odonek berak egin ditu bere inkestak, badakite euren botanteak zer nahi duten, eta horregatik aldatu da Odon Elorza. Ondorioz, berak zuek zergatik ez zareten aldatzen galdetzen du. Bere irudiko, Odonek ez die barrik egin beste herriei, bera jarreraz aldatu da. Lehen errausketaren alde zegoena, orain hori ez da nire bidea esan du. Niri inposatu egin nahi didazue, eta nik botako dizuet baloia zuei. Baina politiko bakarra da publikoki esan duena errausketarik ez duela nahi. Besteak, berriz, zabilzate hiru urte nonbait jarri nahian, eta herriek beti ezetz esaten dizue. Bere ustez, alternatibak daude, mahai gainean daude, eta horiek ez dira eztabaidatu. Berak dioenez, gure politikoak non kokatu, non ziria sartu ibili dira. Horrela, Urnietan jarri nahi izan zutenean badakizue zer izan zen arrazoiatariko bat: *“un pueblo dócil”*, esan du. Oso ondo! Geroztik hemen gabiltza... Bere ustez ordua da gauzak egiteko, arazoa ez baitago kokapenean, gestio-motan baizik. Mundu guztian funtzionatzen dituzten alternatiba dituzte, eta horietako bat konpostajea da. Funtzionatzen du, nahiz eta ez mundu guztian, baina bai toki askotan. Bestalde, politikoek ahoa betetzen dute “Plan Integral” delakoarekin. Bertan, guk denetarik egingo dugu dio: konpostajea, bilketa selektiboa, gasa aprobetxatu eta errausketa ere muntatuko dugu, baina argi esan behar da %72ko dirutza errauskailuak eramango duela. Bestalde, konpostajea bultzatzen dela eta, berak jakinarazi nahi du mundu guztiak egiten duela hori, baino kontua zenbat bultzatzen den dela. Bera eztabaidatzen aritu da 5. edukiontzia jartzeko, eta zenbaitek ez zuten nahi jartzea. Orain, beste mankomunitateak hasi dira jartzen, eta lehen ezin jarri zena orain posible da. Orain



jendeak %31 birziklatzen du. Gaur 2006, Gipuzkoako Hondakinen Plan Integralaren aurreikuspenak %40 birziklatzea da. Kriston helburua! Ordun berak zer gabiltzan, galdetu du.

* Erdialdeko Auzo Elkartearen izenean, jendartean zegoen beste pertsona mintzatu da. Berak adierazi duenez, penagarria eta lotsagarria da gaur Errenteriako herria, hainbeste urte Beraungo hondakindegikoa irensten ibili eta gero, zerbait eskatzen ibiltzea.

* Jendartean zegoen beste lagun batek, Aukera plataformaren izenean, zera adierazi du: bera bat datorrela bere lagunak esandakoarekin, hots, gaurko eztabaida ez dela Landarbaso bai edo ez, Gipuzkoan zer egin hondakinekin baizik. Eta hori, bere aburuz, ez da eztabaidatu. Alkateak, aitzitik, hondakinak kudeatzeko plana bi urtez eztabaidatu dela aitatu du, baina ez du esan plan horretan zazpi alternatiba ezberdin jasotzen zirela, eta alternatiba guztietan erraustegia azaltzen zela eztabaidatzen ari zen gauza bakarra. Ez ziren eztabaidatu ekoparkeak, biomenizazioa, etab. Bakarrik eztabaidatu zen Gipuzkoan erraustegia aplikatzeko zazpi modu ezberdin zeudela. Bere garaian San Markos Mankomunitateak herritarrek esku hartzeko jardunaldi batzuk antolatu zituen, eta bertan, hondakinak tratatzeko sistema ezberdinak baloratzeko proposamena egin zuen. Ba, punturik gutxiena erdietsi zuen alternatiba erraustegia izan zen. Aitzitik, hemen, berorrekin aurrera egin behar dela esaten da. Horrezaz gain, esan nahi du Oiarbide jaunak eskuak garbitzen dituela bera ez dela arduraduna esanez. Bere irudiko hori gezurra da. Izan ere, zergatik joan da Oiarbide jauna herriko sosen gain European barna paseatzera erraustegiak ikustera ez bada, hondakinak tratatzeko aferan arduradun ez delako, galdetu du. Garapen Iraunkorreko foru-diputatua da eta gai guzti honen arduraduna da, gaineratu du. Nola ez dela arduraduna? Erraustegia Landarbaso jartzeko erabakia Donostiako Udalak hartu zuen, baina bera arduraduna da, besteak beste, EA alderdikoa delako eta hau beti Gipuzkoan erraustegia jartzearen alde azaldu delako. Eta Donostian, -zeinak erabakitzen baitu- EAko zinegotziek Landarbasori eta erraustegiari baietz esan zioten. Hau da, EA erraustegiaren alde dago, nahiz eta herri honetan aldatzen ari direla dirudien. EAJ ere erraustegiaren alde dago, nahiz eta hemen Landarbaso erraustegia jartzeari ezetz esan dion. Gainera, EAJk eta EAK Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzeko ari dira, eta nahiz eta erraustegiaren aferan eskumenik ez duten, -hori Mankomunitateei dagokielako- Gipuzkoako Aldundiaren plana, mozkinak sortzen dituelako, hondakinak tratamenduaz kargu egitea da. Gutxienez batzuentzat eta Oiarbide jaunak beti esan izan du. Beraz bada, ez ditzala orain erantzukizunak saihestu. Beste datu bat du emateko: Egia da Landarbaso jartzea Elorza jaunak proposatu duela, baina alderdi Popularreko jaun zenbaitek esan zioten azpiegitura hori jartzeko finka polit bat zegoela han. Horrela, orain denek erantzukizuna saihesten dute, baina denek dituzte eskuak zikinduta kontu honekin, eta erabakia alderdi guztiek hartzen dute. Beno, Ezker Batua eta Aralar izan ezik Batzar Nagusietan denak daude erraustegiaren alde, baina ez dute nahi euren atarian jartzea. Berak uste du kontua ez dela San Markoseko aferarekin 42 urte agoantatu izana, gainontzekoekin solidarioa izatea baizik, eta Landarbaso jartzea ez badute nahi, ez dute nahi izan behar beste inon jar dezaten erraustegia-sistema. Datuen arabera, hondakinak birziklatu, berrerabili eta konpostatzen badira, erraustegiako geratuko lirakeen tonak -eman dezagun 300.000 tona- ez lirakeke laurden bat baino gehiago izango. Orduan zertarako duzue erraustegi bat, galdetu du. Amaitzeko, esan nahi du ados daudela herri-kontsultarekin eta aitatu den eztabaidarekin. Zentzu horretan, herri honetan Agenda 21 azterlana egin zen, eta zoritxarrez, alderdiek ondo zuzenduriko mahai teknikoak ez ziren sartzen erraustegia bai edo ez aferarekin. Aitzitik, herri honetan Agenda 21ek izan behar zuen mahai teknikoek eta alderdi politikoek markaturik zetorren. Era berean, kritikatu izan da Agenda 21 herri honetan Ezker Batuaren eskuetan zegoela, eta eurek ongi aski dakite Udal honetan EB-IUK bi boto dituela. Halaber badakite ongi aski Agenda 21ean gai honi buruzko



eztabaidarik ez zela eman, eta gainontzeko kasuetan ez dela eztabaida sozialik egin. Beti dei egiten zaie enpresariei, bankeroei, eta abarrei, baina herri elkarteei ez zaie deitu eztabaidan esku hartzeko. Eta berriro dio bat datozela Aralarrekin herri-kontsulta egin behar dela esaten duenean, izan ere, erabakia hor hartu behar baita. Horrez gain, Alborg-eko gutuna zein Eusko Jaurilaritzaren Legeren bat eta ingurumenari buruzko estatu-legeren batek, ingurumenari buruzko gaiek herritarrei eragiten badie, herritarrek ez dute eztabaidan bakarrik esku hartu behar, baita erabakietan ere. Eta politikoez hori guztia ez dute kontuan hartzen, gaineratu du.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez, kontu jakina dela denek euren iritzia ematen dutela libreki. Alabaina argi utzi nahi du egiak ez diren eta erkatu gabeko gauza zenbait esaten direla, izan ere, oraintxe bertan esan baita berriro hondakinen planak erraustegia bakarrik aurreikusten duela, eta hori erabat faltsua da. Bera ikusten ari da, beharbada, jende askok plana ez duela irakurri, besteak beste, bertan hondakinen prozesu guztiak eragiten duenaz hitz egiten delako. Erraustegiaz eta desegiteko beste metodoz hitz egiten da, nabarmendu du. Gainera, ez dute ahaztu behar Gipuzkoan konpostatzeko instalakuntzak daudela, eta halaber ikusten ari dira hainbat herrialdetan, tratamendu guztiak pasa ondoren, nola sobratzen zaien tona eta tona zabor. Aldatzen duen kontua zera da: zenbait lurraldetan hondakinak eduki ditzaketela eta beste batzutan ez. Esan nahi du, erraustegia hautatu duten herrialdeek ez dutela hautatu "horren alde daudelako", baizik eta gainontzeko guztiarekin, behar bat gisa bereganatu dutelako. Horrez gain, uste du ibilgailuek sortzen duten kutsadurari denek ezetz esango lioketela, baina gutxi batzuk -inork ez esateagatik- uko egiten dio ibilgailuei. Halaber ez zaio ukorik egiten ere gizarte modernoak eskaintzen dizkien beste gauzei, nahiz eta horiek kontraindikazioak eragin.

* Jendartean zegoen Errenteria - Orereta Bizirik plataformako beste lagun bat mintzatu da eta zera adierazi: pozten dela denek udalbatzarrean, alkatea buru dela, Landarbason erraustegia jartzearen aurka azaldu izanaz, izan ere, Elorza jaunak erabakia plazaratu zuenetik Udal hau nahiko isilik egon baita. Bere iritziz, herritarrak gai honetan aurretik joan dira. Are gehiago, herritarrak haserre eta harrিতuta geratu dira; txundituta geratu dira bigarren mailako herritarrak diruditelako. Horrela, San Markos eta Txingudi mankomunitateetako hondakinak jasotzetik Gipuzkoa osokoak jasotzera pasako garela, nabarmendu du. GHHKPO eta eztabaida sozialari dagokionean, berriz, bera Odon Elorza izango balitz, edo bere Gobernu Taldeko partaide, GHHKPOk defizit demokratikoa izan duela esango zukeen, baina ez denez Odon Elorza, erraustegiaren aurkako plataformakoa baizik, esku hartzeko aukerarik izan ez dutela esan behar du. Ia dena itxurakeria izan dela. Esan liteke zazpi batzorde eratu zirela, baina euren aurkezturiko proposamena ez zen sekula onartua izan. Ez zen aukera gisa ere aurreikusia izan. Hori al da eztabaida publikoa, galdetu du. Gainera, GHHKPOn ez dira arazo demokratikoak bakarrik ematen, arazo teknikoak ere badira. Berak ez ditu bertan daudenak zifrekin zorabiatu nahi, baina Alkateak ez dela irakurri dirudiela esan duenez, berak esan behar du zenbaitzuk irakurri dutela, eta plan alternatibo bat ere egin, egin dutela. Horrela, Gipuzkoak urtean 400.000 tona zabor sortzen ditu eta 300.000 tonarako erraustegia bat muntatzeko asmoa dute. Jaunok egin itzazue kontuak, gaineratu du.

* Oiarbide jaunak (EA) adierazi duenez, egin litekeen handiena 210.000 tonakoa da. Hots, dokumentuan erraustegia sekula ez daitekeela sortzen diren hondakin guztien %51a baino handiago egin jartzen baitu.

* Errenteria - Orereta Bizirik plataformako ordezkariak hitz egiten jarraitu du, eta zera erantzun du: orduan %40 birziklatzea dela helburu. Berak uste du birziklatzea eta gaikako



bilketa nahasten direla. Bestalde, PPri gogorarazten dio Donostian alderdi hori izan zela Landarbason jartzea planteatu zuena, nahiz eta hemen aurka egon. Azkenik, hemen erraustegia edo zabortegia aukerak aitatu direla esan du. Bere aburuz, eztabaida hondakinen kudeaketa iraunkorra nola egin izan beharko litzateke. Eta nahiz eta zenbaitek demagogoak direla esan dien, bere irudiko erraustegia jartzeko kontua serioago hartu beharko litzateke. Izan ere, nora joaten dira hauts toxikoak? Kontua ez baita atmosferakoa bakarrik, esan du.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, berak ez du denei erantzuteko irrikarik, baina hainbeste gauza esaten direnez, zenbait argitu nahi ditu. Horrela, norbaitek zaborren %100 birziklatzeko sistematik badu, joan dadila korrika patentatzera, esan du. Oraingoz ez delako, uste du milionari egingo litzatekeela. Halaber, hondakin toxikoen inguruan zerbait esan nahi du. Hots: zer egiten da pilekin? Ez dute ahaztu behar oso toxikoak direla, eta orain artean ez dago birziklatzeko sistematik. Egiten den gauza bakarra bildu da, eta hori ondo deritzo, baina inork ez du egin pilak erabiltzeari uzteko kanpainarik, gaineratu du.

* Errenteria - Orereta Bizirik plataformako ordezkariak arrazoi duela erantzun dio, baina erraustegiak hondakin dezente sortuko duela, gaineratu du. Zer egingo duzue orduan? Ez dira pila-hondakinak bakarrik izango, eta hori ez da GHHKPOn ikusten. Non jarriko da zabortegi hori? Berak, modu ez ofizialean esaten badu ere, susmoa du berriro ere San Markosen jarriko ote duten.

* Jendartean zegoen beste lagun bat mintzatu da eta berari tristea iruditzen zaio herritarren kontzientzia izatea politikoak mugiaraziko dituen. Hau da, herritarrengatik ez balitz izan, beharbada, orain ekitaldi hau ez ziren egiten ariko. Era berean, bere aburuz, tristea da Gipuzkoa osoko zikinkeria Errenteriako herritarrek duten aisialdirako leku bakarrean sartu nahi izatea, hiri erditik 6 kilometrora. Azkenik, komunikabideei zintzo jokatzeko eskaera egiten die, eta hemen gertatzen ari dena azaltzeko, batez ere horietako bati, gehien saltzen denari alegia, interes asko daudelako –ez erraustegiari buruzkoak bakarrik- eta baldintzatua izaten delako. Eta herritarrei eskatzen die eskelak jartzeko garaian pittin bat banatzeko, izan ere, denek bai baitakite zer dagoen komunikabide horren atzean.

* Jendartean zegoen beste batek zera esan du: bertan daudenen batz besteko adina kontuan hartuz gero, zinegotziek txaloak jo beharko litekeela, nahiz eta badakien ez dietela joko. Bestalde, EA, EAJ/PNV eta batez ere Garapen Iraunkorren Saileko diputatu jaunari, zeinaren eginkizunak, esaterako, lurraldearen garapen orekatua eta iraunkorra bermatzea baitira, baliabide hidrauliko guztiez arduratzeko, hots, errekez, urtegiz, herritarren ur-horniketez eta saneamenduz. Norbaitek ez badaki ere, bere ardura da uraren kalitatea, antolamendua eta ingurumenaren defentsa, hiri-hondakinen plana eta garapen iraunkorra. Gaur, Luis M^a Oiarbide Arizmendi jauna, ezin zara eskapatu, zure lana egiteko kobratzen duzulako, ezin duzu esan bi lan dituzula, aurpegia eman behar duzu, hitz egiten duen honek eman duen bezala, izan ere, horretarako kobratzen duzu. EA eta EAJko jaunei Elorza jaunak gol bat sartu die, eta ipurdia bistan utzi die. Izan ere, militanteek eta boto emaileek ez baitakite bozkatuko dieten. Oso haserre daude, eta ondorioz, atzera egin beharrean aurkituko dira, nahiz eta berak hemen adierazitako jarrerari ongietorria ematen dien. Berriro Oiarbide jaunarengana zuzenduz zera esan dio: badaudela alternatibak eta zentzu pixka batekin lana ondo egin dezaketela pentsatzen duela. Gainera, uste du orain artean inkopententeak izan direla, San Markoseko hondakindegia bete zaie, ura leporaino dutela daude eta orain erraustegia bat



muntatu nahi dute. Denek jakin badakite herria ondo tratatzen bada, herriak behar bezala erantzuten duela eta, euren zaborrekin egin beharrekoa egiten dutela. Horrela, lanera joan aurretik han dauden guztiak euren poltsak edukiontzietara eramaten dituzte, eta beste edukiontzi jartzen badiete, ziur aski, hara ere eramango dute. Bestalde, Alkateak esan duenaren arabera, asko da birziklatzen dena, ba jarraiouzue bide horri. Berak ez du esaten zerbait ez den erraustu beharko. Politikoez herriaren kontura Europan barrena egin dituzten bidaietan esaten dutena baino gauza gehiago ikusi dituzte, eta badakite han birziklatzen dela. Berak, berriro dio, bide horri jarraitzeko. Berak ez du erraustegiarik nahi ez Landarbason, ezta beste inon ere. Horrez gain, zuzenean erasandako bizilaguna denez, esaten die ez dagoela eskubiderik gauza hauetaz guztiaz prentsa bidez enteratzeko, moduak kontuan hartu gabe. Hots, bere oiloak egoten diren gaineko aldeko eremuan erraustegia jartzekoak direla prentsa bidez jakin du, eta hori beretzat ekintza biolentua da.

* Oiarbide jaunak (EA), lehen esan duen bezala, ez du bere jarrera adieraziko eztabaida honetan. Bere ustez okupatzen duen kargua publikoa da eta hango informazioa erraz aski jaso liteke. Azkeneko hitz egin duen andreari argitu nahiko lioke berak ere prentsa bidez jakin zuela, eta handik bi egunetara jaso zuela Donostiako Alkateak postaz bidalitako informazioa. Hondakin-planen eta hauen edukien helburuei dagokionez bi datu bakarrik jarriko ditu mahai gainean: bat, hondakin-plana aurreko legegintzaldian eginiko plana dela. Garai hartan Gipuzkoako Foru Aldundian asko eztabaidatu zen orduko Mankomunitateekin batera eginiko plana. Gero Europar Batasunera jo zuten eta Europar Batasunari homologaturiko kudeaketa-eredu bat eskatu zioten. Horrek EASW tailerra du izen, eta bertan parte-hartze ereduak antolatzen dituzte, ez dituzte administrazio publikoek antolatzen. Europa Batasunak Estatu bakoitzean baimenduak ditu dirua irabaztea xede ez duten mota horietako erakunde bat edo bi. Erakunde horietara jo behar da, eta hortik aurrera erakunde horrek antolatzen ditu eta hautatzen zeintzuk hartu behar duten parte. Berak erabakitzen du ere lan-eredua eta konklusioak nolakoak izan behar duten. Herritarren parte-hartze eredu horretan, esaterako, erabaki zuten mugatu egin behar zela, adibidez, erraustegien neurria, besteak beste, birziklatze eta konpostatzearen emaitzak txarrak baziren zabor guztia erraustegiara eramatea saihesteko. Horixe pasatu da, esaterako, Katalunian, non konpostatzeko planak ez baitira gauzatu ahal izan, ezta %50ean ere. Gauza bera geratu da ekoparkearen inguruan zeuden planekin eta jadanik itxi behar izan dituzte. Eta 50.000 tonako erraustegi bat itxi duten denbora berean – zeinari kriston garrantzia eman baitzaio- beste 160.000 tona errausteko kapazitatea duen erraustegia egin dute San Adrián del Besos-en, zeina gehienek jakingo duten moduan, Bartzelonan garrantzia handiko duen leku batean baitago kokaturik, Forum-en hain zuzen ere. GHHKPOri dagokionean, berriz, Aldundiak bereganatutako afera dela esan behar du, eta berak bere osotasunean onartzen du departamenduko eta planifikazio arduradun gisa. Alabaina esan nahi du, hemen Gipuzkoako gaikako zabor-bilketa eta birziklatzeko helburuak bete direla, eta hori ez da egia. Oraindik urrun gaude. Gipuzkoako gaikako zabor-bilketa %67koa da, baina ez dute ahaztu behar hori horrela bada, Gipuzkoako industriek %90a baino gehiago biltzen dutela gaika dela. Herritarrek oraindik %20ra, %18,8 botatzen dute gaika banatuta. Orduan, herritar orok bikoiztu beharko du birziklatzea, baldin eta Gipuzkoako hondakinen planean jasotako helburuak bete nahi badira. Helburu horiek zenbaitzuentzat eskasegiak dira. Eta berak, berriro dio oraindik helburuen erdiak ez dituztela bete. Eta helburu horiek erdiesteko ez dutela erakundeek bakarrik lana egin beharko, Gipuzkoako herritar guztiak baizik, gaineratu du.

* Jendartean zegoen beste lagun batek Peralta andreari (PP) zera esan dio: San Markosen usain txarrak orain ere izaten jarraitzen duela. Bestalde, duela egun batzuk Donostiako Udaletxean Elorza jaunarekin egon zirela esan du. Alkateak erraustegia



Landarbaso jartzeko asmoarekin jarraitzen duela gaineratu du. Horregatik, zinegotziei eskatzen die esateko hor ez litekeela erraustegiarik jarri.

* Jendartean zegoen beste lagun batek Oiarbide jaunari (EA) zera esan dio: berak Kataluniako erraustegiak aitatu dituela, baina han, bera oker ez badago, hainbat itxi dituzte. Hemen, egiak erdizka esaten dira, gaineratu du. Bestalde, alderdiek, mintzatu direnean, erraustegia Landarbaso jartzearen aurka daudela esan dute, baina beroriek sinatu duten mozioa irakurtzen badute, Errenteriako Udalak ez du esaten erraustegia Landarbaso jartzearen aurka dagoenik. Esaten den gauza bakarra zera da: Donostiako Udalak berrius dezan Igoi Azpi kokatzeko erabakia, etab. Bere iritziz, beste behin, egiak erdizka esaten ari direla, gaineratu du.

* Burgos jaunak (EA), azken adierazpen hauek argitzearren, zera adierazi du: lehen egindako proposamena, ez duela Eusko Alkartasunaren jarreratik egin, baizik eta plataformek eta San Markos inguruko herritarren mozioaren lehenengo puntua gehitzeko eskatu die alderdi guztiei. Mozio horretan argi eta garbi esaten da, eta berak halaxe esan du, Errenteriako Udala Landarbaso erraustegia jartzeko proiektuaren aurka dagoela erabat. Eurek hori oso-osorik onartzen dute, hitzez hitz onartzen dutela esan du, eta hori gaur hemen esan du. Aurrez mintzatu denak ez badu aditu, ez da nire arazoa, gaineratu du.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) azpimarratu nahi du mintzaldi guztietan argi eta garbi esaten ari direla eurek aurkezturiko mozioa onartzeaz gainera, beste mozioaren lehenengo puntua onartzen dutela.

* Oiarbide jaunak (EA) gauza bat argitu nahi du, izan ere, Katalunian erraustegiak itxi direla esaten zen, baina azpimarratu nahi duela bi urte baino gehiago iragarri zutela bat itxiko zutela Europako araudia ez zuelako betetzen, alabaina ez dute itxi bestea martxan zegoen arte. Gainera, egin duten berria itxi dutenarena baino hiru aldiz handiagoa da. Bestalde, Gipuzkoan ez dute nahi eztabaida publiko errazarekin jolasten ibili, hots, alde bateko itxurak egiten ibili eta gero atzetik beste gauza egin. Eurek dituzten jarrerak zuzenez zuzenean aurpegira esaten dituzte, eta eurek dituzten zifrak mundu guztiaren esku jartzen dituzte. Gipuzkoako hondakinen plana onartu zenetik Aldundiaren web orrian dago; gai horri buruzko informazioa lurralde honetako etxe banatu dute, eta edonola ere, eta edukiari buruz zalantzak dituen edozein pertsonak ez du Gipuzkoako Foru Aldundia bakarrik, baizik eta Gipuzkoako Mankomunitate guztiak ditu gauzak argitzeko, nabarmendu du.

* Jendartean zegoen beste lagun batek zera galdetu du: Ea Udaltzako zer egiteko asmoa duen Elorza jaunak erraustegia hor jartzeko asmoarekin jarraitzen badu?

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez, Errenteriako Udalak ezin duela, ezta beste bakar batek ere, legez beste Udaltzako bere eremu barruan egindako ekintzen aurka jo. Hau da, udal gisa adierazi dute ez zaiela gustatzen kokapen hori, baina ezin dute debekatu Donostiako Udaltzako bere mugapean egin nahi duena. Bere ustez beste baliabideren bat egongo da, eta horregatik eskatzen du egin beharreko azterlanak egiteko. Errenteriako Udaltzako ez dezake Donostiako beharraz hark erabaki duen zerbait ez egitera, gaineratu du.

* Lehen mintzatu den pertsonak esan duenez, erraustegiara iristeko bideak Errenteriatik pasako dira. Kamioiak hortik pasako dira eta hori errefusatu liteke, gaineratu du.



* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, berak proiektu horretaz dakien gauza bakarra prentsan ateratakoa da, eta hor kokapenez besterik ez da hitz egiten. Ez da ezer zehazten edo ezer gehiago esplikatzen. Eta ez zehazte horretan ez da azaltzen toki hipotetiko horretara nondik helduko litzatekeen. Ezin dute jakin inon ez dutelako esan.

* Jendartean zegoen beste lagun batek hitz egin du, Hilario Bernardez Redondo dela adierazi du. Lehenik, Merino jaunari galdetu dio, gauzetaz egunkarien bidez enteratzen bada, ea zer pintatzen duen alkate gisa? Berak ikusten duenez, Odon Elorza jauna denen lanak egiten ari da. Beretzat Errenteria ez da bigarren mailako herri bat, lehenengo mailakoa da. Berak 46 urte daramazkit herri honetan, eta egunak joan egunak etorri Errenteria hobeto zihoan, alabaina datozen urtean hauteskundeak daudenez, Alkatea zein Udalbatzan dauden beste batzuk mugitu beharko dutela uste du. Bere irudiko Errenteriako alkateak herriari begiratuko dion pertsona bat izan behar du, auzoei begiratuko diona. Aldiz, Beraunen 12 milioi baino gehiago kosta den monumentu bat jarri dute, Errenteriako leku gehiagotan ere jarri dituzte. Orduan berak zera esaten du: ez litzateke hobea izango Galtzarabordako aldapetan 60 urte baino gehiago dituztenentzako igogailu bat jartzea? Berak ez du baloratuko San Markoseko afera, ez delako teknikari bat. Bera eraikuntzan lanean ari den peoia da, alabaina bere adimenak nork jarduten duen zintzo eta nor dagoen garbantzua irabaztearren ezagutzeko lain ematen dio. Eta zuek sosengatik zaudete, esan du. Azkenik, Beraungo balkoietara begiratzeko iradoki die, besteak beste, han daudelako botoak.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eskatu du, norbaitek lehen aitaturko dokumentuak baldin baditu, erakusteko. Berak dakienez, ez dago toki horretara heltzeko bidea erakutsiko duen dokumenturik.

* Errenteria-Orereta Bizirik Plataformako partaide gisa Murua jaunak zera adierazi du: erraustegien arazo honekin hiru bat urte daramazkiela, eta berak prentsan irakurri duenaren arabera, herritarren ustetan alegia, kalifikatiborik erabileran politikoez afera honetan oso gaizki jarduten ari direla da. Bere ustez, iritzi honekin denak bat datoz, eta gaurko osoko bilkuran sentipen hori bera baieztatzen ari da. Bere iritzi, politikoez zaborren arazo honi irtenbidea bilatzeko garaian erakusten ari diren erantzukizun eza arriskutsua gerta liteke abenduaren 31tik aurrera. Izan ere, denek eskatzen ari den bezala, data horretan San Markos itxiko dutela espero baitute. Azken finean, zuek ez baituzue soluziobiderik aurkitu eta lehengo dinamikarekin jarraitzen baituzue, gaineratu du. Horrez gain, gaur alderdi politikoren batek, nolabait zama ezkutatzearren, herri honetakoak direla eta herri honetako interesak defendatzen dituztela esan du, bien bitartean, ordea, alderdi horiek berek Donostian euren interesak defendatzen dituzte. Bere aburuz, modu horretan jardunez herritarrei adarra jotzen zaie, eta zinegotzietan begiratu zera galdetu die: zuetako norbaitek uste al du ba ote dagoen alderdi politikoren bat Gipuzkoan erraustegia jartzeko lekua onartuko duenik? Izan ere, Urnietan ez zuten onartu, PSOEek Aritzetan jartzea ez zuen onartu, eta ez zen egin. Orain kontua herri honetara dator, eta zorionez, denak bat datoz, eta hori zoriontzekoa da, nahiz eta errefusatzeko idatzia egiterakoan bateren bat itzulinguruka ibili dela uste duen. Bere ustez zinegotzietan zerbait gehiago exijitu behar zitzaie Donostiako Udalari eskera egiteko garaian. Bere irudiko, motz antzean geratzen dira, baina erabaki dutena erabaki dute, nahiz eta hori gizarteak eskatzen duenaren atzetik egon. Horrez gain, bera konbentziturik dago hemen egin nahi dena, beste behin, arazoa saihestu dela. Bere aburuz, alderdi politikoez Landarbasori ezetz esatera behartuta zeuden, hain zuzen osoko bilkura honen aurretik ia alderdi politiko guztiek, Alkateak, EAJk, baita EAk ere, txostenen zain zeudela adierazi dutelako. Orduan berak zera galdetzen du: txostenak aldekoak badira, onartuko al duzue Landarbasoan jartzea? Hori



prentsan azaldu da, esan du, nahiz eta gaur hemen, zorionez, Landarbason jartzearen aurka azaldu zareten. Hala ere, berak imajinatzen du gerora norbaitek izango duela ardua beste kokaleku bat bilatzeko, eta udalerrri horretako zinegotziek, ez al dituzte defendatu herri hartako interesak hemen hemengoak egiten ari diren bezala, galdetu du. Edo zer egingo dute? Uko egingo diote eginkizun eta erantzukizun horri, erraustegia jartzea ez zaiela axola esanez? Berak uste du, beste behingoz, jira-biraka dabiltzala, izan ere, hiru urte daramazkiete kontu honekin eta zaborraren afera geroz eta larriagoa da. Berak, Errenteria-Orereta Bizirik plataformako partaide gisa, esan dezake duela urte bat baino gehiago aurkeztu zutela mozio bat Udal honetan. Bertan, gaur Udalbatzan ordezkariak ez duten alderdi zenbaitek eskatzen duen gauza bera eskatzen zen. Hots: eztabaida soziala zabaltzeko, gizartea entzuteko eta horren baitan eta denen interesen baitan hartzeko erabakiak, eta ez alderdien interesen arabera. Bere irudiko orain alderdiek aukera dute, aprobetxatu beharreko aukera hain zuzen ere. Gainera, uste du eztabaida hori Gipuzkoa osoan eman beharko litzakeela. Ildo horri jarraiki, pentsatzen du GHHKPOn aldekoek eztabaida zabala eman dela esango dutela. Aitzitik, beste sektore batzuk kanpoan eztabaida hori ez dela eman esango dute, baina bere irudiko denborak erakutsi du gizarteak gai honekiko sentiberatasun berezi bat duela. Ondorioz, politikoez jarrera birbideratu dezaketela uste du, eta berriro eztabaidatzeko aukera eskaini. Oro har gizartea entzun eta denen artean gauza izan sistema bat aurkitzeko, zeina hemen esan den moduan, izan dadila jasagarria, natura, paisaia eta herritarren osasuna bermatuko duena.

* Jendartean zegoen beste lagun batek hitz egin du, eta honek dionaren arabera, duela 15 bat urte bazekiten San Markoseko Hondakindegia 2006an itxiko zela. Eta bitartean, hiri-hondakinak tratatzeko egin den plan bakarra erraustegia izan da, ez da besterik aztertu. Orain, politikoez mahai gainean dute erraustegiaren aurkako plataformek aurkezturiko plan-alternatibona. Berrehun orrialde dituena, estudiatua, eta kobratu gabe jende askok lan egin ondoren ateratakoa, hots, zortzi ordu edo gehiago lan egin ostean, euren denbora librean lan eginez, arduradunei aurkeztua izan dena. Ondoren, Oiarbide jaunari (EA) zera galdetu dio: nora joango da hondakinak erre ostean geratzen den %33a, hau da, 1974az geroztik errepideak egiteko erabiltzea debekaturik dagoenarekin?.

* Oiarbide jaunak (EA) erantzun du esanez, erraustegi batetik irteten den %33a ez dela hondakin toxikoa. Berak dioenez, erraustegiez asko hitz egiten bada ere, badirudi ez dagoela ideia handiegirik beroriek benetan zer diren, nola funtzionatzen duten eta emaitzen inguruan. Berriro dio %33a ez dela hondakin toxikoa, horiek errepideak egiteko, burdingintzarako lehen gai gisa birziklatzen direla eta Ekoembesek eramaten dituela bidria egiteko. Enpresa honek bidria edukiontzietatik hartzen duen modu berean hartzen du. Ez da egia hondakinak errepideak egiteko ez litzakeela erabili. Are gehiago, Estatu espainolean material hori errepideak egiteko erabiltzen da, paretak egiteko edo herrilanak egiteko. Alemanian, Britainia Handian, Holandan edo Belgikan material hori erabiltzen da hainbat gauza egiteko, baita toxizitate gehiago duen erraustegiako errautsak ere. Holandan, esaterako, eraikuntzako material gisa erabiltzen dute, eta errautsekin batera, itsasotik babesteko murrak egiten dituzte. Alemanian, berriz, eraikinak egiteko erabiltzen dute, hormigoia osatzeko elementu bat gehiago izango bailitzan. Eta hemen, Gipuzkoan -zeinaren ardua baitute- %1eko hautsez hitz egiten ari dira, eta nahiz eta horiek berez ez diren hain arriskutsuak, baizik eta arriskutsua horien lurruntasuna delako, izan ere, hautsak direnez, aireak mugitu eta zabal ditzakeelako edo urak lixibatu. Gainera, hauts horiek sortzen direlako, gaur egun filtroak ipintzen dituzte. Eta lehen, filtroak jartzen ez zituztenean, erraustegiek hauts horiek airera jaurtitzen zituzten, eta erraustegiak botatzen zituzten hautsak errotik murrizteko onartu zuen Europar Batasunak onartu zuen araudia, eta



ondorioz, filtrazio-sistema asko jarri behar izan zituzten, zeinek erraustegia-plantaren ia erdia suposatzen baitute. Horregatik, lehen airera joaten zen eta kutsatzen zuen hori gaur egun jaso eta kontrolatu egiten da. Errausts horiek batez ere bi modutara tratatzen dira: bata, berriena eta esperimendu garaian dagoena, beirakia bihurtzen da, hau da, tenperatura oso altuekin harkaitz bihurtzen dute. Sistema hau ez dago zabaldua, oraindik esperimendu gisa ari dira lanean. Horrela, Aldundiak berak ikerketa eta teknologia-zentro batzuekin hitzarmenak ditu eginak ea sistema hori Gipuzkoa bideragarria izango ote litzatekeen ikusteko. Beste sistema, azken 50 urteotan Gipuzkoan erabiltzen ari dena da, izan ere, errausts mota horiek Gipuzkoan jarduera industrialak existitzen denetik daudelako, eta hondakin horiek ez direlako papertegi batek, burdingintzako enpresa batek, energia-planta batek kanpora jaurtitzen dituenak baino diferenteagoak. Ezta, esaterako, autoek egunero botatzen duten oxido nitroso horretatik ere. Horregatik, Gipuzkoako burdingintzarako –aise estatuko indartsuena dena- toki berezi batzuk daude hauts hauek tratatzeko, eta horiek Gipuzkoako hondakin- erraustegiekin sortzen dituzten mota berekoak dira. Ondorioz, erraustegi hori, jartzen den lekuan jarrita ere, eta baikorrak izanez gutxienez bost urte pasako dira, hiru aukera ezberdin izango dituzte ordurako: bata, errausts horientzako toki bat berezia egitea, orduan logikoa izango litzateke erraustegia dagoen lekuan bertan eraikitzea, hain zuzen mugimendua saihesteko eta lurrian barrena ez barreiatzeko. Beste aukera bat izango litzateke, -Europako beste lekuetan erabiltzen dena eta horretarako araudi europar berezia dago- Europar Batasunak baimendutako kudeatzaileak kontratatzea. Hauek Europa guztiari zerbitzua eskaintzeko haineko plantak dituzte, eta hauts berezi horiek kamioi berezi batzuetan hartu eta euren plantetara eramaten dituzte. Eta hirugarrena, Gipuzkoan gipuzkoar burdingintzarako hauts mota horiek tratatzeko dauden instalakuntzan erabiltzea izango litzateke.

* Jendartean zegoen beste lagun batek, Mallorcako erraustegiaren irudiak ikusi dituenak, zera adierazi du: penagarria zela ikustea mendiak hauts toxikoez beteta, gero haizeak herritarren artean banatzen zituenak.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez hori ez duela ikusi erabat faltsua delako. Ikusi dituenak eskoriak direla, gaineratu du. Izan ere, hautsak zementuarekin nahasten dituzte eta horretarako prestatutako hondartza batean barreiatzen dituzte. Eskorietatik, pilatuta daudenetik, beirakia, metala, etab. ateratzen dute.

* Peña andreak (EAJ(PNV)) adierazi duenez, Murua jaunak egin dituen aipamenei erantzunez, zera esan dio: EAJ, albistea prentsan atera bezain laster, kazetariak deitu zuten, eta une horretan bertan bere desadostasun adierazi zuen solidaritate eta paisai aldetik leku horrek zeukan garrantziagatik. Era berean, egia da entzuten zuten lehenengo albistea zela, Diario Vascon irakurri berria eta informazio gehiagori itxaron beharko zuketela. Gaur gaurkoz oraindik ez dakite sarbideak eta gainontzeko gaien berririk. Bestalde, mintzatu diren herritar orok esan dituztenak entzunda gogoeta zenbait egiten dizkio bere buruari. Bere aburuz, hemen eztabaidatzen ari denari buruz irizpide ezberdinak daudela dirudi. Hots: kokapena bai – kokapena ez, erraustegia bai – erraustegia ez, hondakinak kudeatzeko plana, etab. Jakin, denek badakite, bere alderdiaren jarrera erraustegiaren aldekoa dela, baina nahiz eta alderantzizkoa izan, berak ondorengo hausnarketa egiten du: gustatuko litzaioke afera honen erru guztia erraustegiak duela esaten dutenei, une hauetan, kokapenaren arazoa gainean dutela, herritarrei zera erantzungo baliete: herri-galdeketa egingo balute eta erraustegia ez dela aukerarik onena aterako balitzateke, eta beste edozein aukeraren (zaborteia, konpostajea, etab.) alde egingo balitz, prest egongo al zinateke hori Landarbaso inguruan ezartzeko? Jendeak ezetz esan duenez, orduan berak eskatzen du, halaber, esan dezaten euren



ondorioa une honetan eztabaida kokapena dela. Eta bestelako sistema alternatiboen alde dauden alderdiak berena bezalako egoeran egongo liratekeela. Ondorioz, hemen Errenterian kontua da kokapena ez dela egoki defendatzea, bai konposta egiteko planta jartzeko, bai zabortegia edo erraustegia jartzeko.

* Jendartean zegoen beste pertsona baten ustez kontua argi dago. Errenteriak berrogei urte baino gehiagoz agoantatu du zabortegia aire librean, bertan hildako zinpeko jagole bat ere badago tartean. Bere ustez nahiko arrazoi daude Errenteriak bete duela esateko. Berak ez daki non jarri beharko den erraustegia edo bestelakoren bat, baina kutsatzen ez duena eta jarri beharrekoa zoragarria izanagatik, ez dute Errenterian eta Errenteriatik hurbil jartzea nahi. Bere ustez hori oso gogor defendatu behar dute Landarbason ez ipintzeko.

* Lehen erraustegiaren aurkako plataformako ordezkari gisa hitz egin duenak ARALARrek proposamen bat egin duela eta hori ahaztuta geratzea ez litzaioke gustatuko esan du. Eurek prest egongo lirateke jaso eta Udalbatzari proposatzea hondakinak kudeatzeko aferari buruzko lan mahai bat eskatzeko. Ildo horri jarraiki, Agenda 21ean proposatu zuten, hondakinen tratamendua aparte tratatzeko. Bere aburuz, Udalbatza honek ez luke bakarrik onartu beharko mozio malgu edo erradikalagoa, baizik eta erabaki beharko luke halaber Errenterian zein kudeaketa mota nahi dugun. Horrela, aprobetxatuz Garapen Iraunkorreko foru-diputatua hemen dagoela, uste du eztabaida hori probintzia osora zabal litekeela.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez alderdi politikoek aurkezturiko mozioan eskatzen dutela zaborren aferan informazio-kanpainak eta parte-hartzeak garatzeko.

* Jendartean zegoen beste lagun batek Oiarbide jaunak (EA) datu asko eman dituela esan du, alabaina poztuko litzateke Udalbatza baten egin beharrean plataformetako jendearekin eta beste alternatibak aztertzearen alde dauden jendearekin behar den moduko eztabaida egingo balu, izan ere, orain horri uko egin baitio. Bere irudiko, orain arte propaganda besterik ez da egin, herritarren dirua panfletoak eta erraustegiaren aldeko prentsa-iragarkiak egiteko erabili da, eta eztabaidari beti uko egiten zaio. Zenbat aldiz eskatu diogu Aldundiari eztabaidatzera joateko eta ia sekulan ez da joan! Bere ustez, Oiarbide jaunak eztabaidatu nahi du, hau ez da une egokia, bi ordu daramate hitz egiten, dituen datuekin uzurtuta uzten du jende asko, eta eskerrik ikasi dituen, izan ere, dezente kobratzen baitu hori egiteagatik. Udalbatzari eskatzen diote Reina Aretoan eztabaida publikoa egiteko, Errenteriako jende orori irekia, denak joateko gisako orduan eta bakoitzak bere argudioak eraman ditzala eta han adierazi, izan ere, hemen jaurtitzen diren hala-holako egiak, demagogia egitea baita.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez ez dezakeela esan “egingo dela”, baizik eta “egiten jarraituko dela”.

* Lezoren Aldeko plataformaren izenean Mikel Mitxelena jaunak hitz egin du, eta Pasaia eta Oiarzungo plataformen izenean halaber zera esan du: Aukerako lagunak argi eta garbi esan duela bere zilegizko aukera probintzian herri-galdeketa egitearen aldekoa dela. Alkate jaunak zein izango litzatekeen galdera azaldu du. Berak, bere aldetik, uste galdera ondorengoa izan beharko litzatekeela: hartzen al duzu konpromisoa erraustegia baztertzeko Gipuzkoako Herrialde Historikoan, eta lan egiteko konposatzearen alde? Bere aburuz, hau edozeinek onar dezake eta konpromisoa denena izan behar duela uste du, hain zuzen



birziklatzen etxetik hasi behar delako. Oiarbide jaunari esan gura dio, Errenteriako izanik etxeko lanak egiten hasi beharko lukeela, lehenik bere herritik hasi, eta gero, beharrezkoa izanez gero, Aldundira joan eta probintziako interesei begiratu. Berak uste du lehenbiziko herrikoa egin beharko lukeela, bestelako jarduera hipokresia baita. Has daitezela eurengandik, horiek ekologisten itxurak egin eta etxean egin dezaketen guztia egin gabe uzten baitute! Bestalde, erraustegia defendatzen dutenen hipokresia dago, erraustegiaren aldeko programak eta propaganda intzentibatuz dirua gastatzen ari dira, eta ez gastatu behar den lekuan gastatzen, beste programa batzuetan, nahiz eta oraindik demostratzeke dagoen horiek

baliagarriak diren. Beretzat, programa horiek birziklatzeren aldekoak, gaika biltzearen aldekoak, laugarren edukiontzia jartzearen aldekoak, biometanizatzeke, etab. Hipokresia da, aho batez, erraustegia Landarbason jartzearen aurka daudela esatea. Gainera, beste erraustegi bat distantzia motxean jartzekeoak dira, Gaintxurizketan hain zuzen. Lezorekin muga egiten duen lekuan, hortaz ez da ezer aitatu eta hori ere hipokresia da. Ezker Batua eta oro har denak gonbidatzen ditu Gai Zerrendan sartzeko Txingudiko erraustegia errefusatzen dutela esateko, zeina Landarbaso baino hurbilago baita. Toki horrek Txingudiko Badia osatzen du. Parke Naturala, Jaizkibeldik hurbil dago, Errenteriako jende askorentzat aisialdirako lekua da. Bere aburuz, osoko bilkura aprobetxatu beharko litzateke bozkatu asmo den akordio horretan Irungo Alkate eta zinegotziei jakinarazteko Txingudiko erraustegia errefusatzen dugula. Bere aburuz lana egin beharko litzateke plataformek aurkeztu dituzten 400 orrialdeak aztertzeke, duela 4 urte eskaini zen edukiontzi organikoa ipini eta dirua gastatu denek etxetik lanean hasteko. Eta edukiontziak ez sartu lurpean zaborra ikusi ez dadin, zaborren zerbitzua ez utzi 24 orduak irekia herri honetan egiten den bezala, izan ere, hemen zaborra edozein orduan atera bailiteke eta politika hipokritarik ez egin. Azken hau bere ikuspuntutik esan du.

* Oiarbide jaunak (EA) bi gauza argitu nahi dituela esan du: Horrela, zentzu jakin batean ez bada, ez dela gauzarik egiten esan da. Aitzitik, Aldundiak eta bera buru den Sailak, urte bat eta erdi hiru milioi eta erdi baino gehiago gastatu ditu prebentzio-gaien aldeko ekintzetan. Bere ustez, beste gutxi inplikatu diren gai batean konpromiso zuzena hartzea dela uste du, izan ere, hondakinak sortzeari buruz jarduten dute eta ez azkenean eman behar zaion tratamenduaz. Bestalde, bera errenteriarra da, eta gai horri buruz bere iritzia eta bihotza ditu, baina demagogiaz eta kontraesanaz hitz egiten denez, Lezoko lagunari gogorarazten dio 42 urte daramazkiela bere zaborra San Markoseko hondakindegira bidaltzen, eta 42 urtez bere kandidatek eta bere alkateak ez dute minutu bat galdu euren zaborra Beraun ez bezalako beste toki batean bota beharko litzakeela pentsatzen, hain zuzen ez delako euren herria. Ondorioz, besteei solidaritatea eskatu beharrean euren burutik has daitezela esaten dio. Izan ere, besteei exijitzen hasteko inork berak bestentzako egiten dituen proposamenak aplikatzeko prest egon behar baitu.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), S.O.S. Añarbe, San Markos, Errenteria-Orereta Bizirik plataformek eta Aralar alderdi politikoak izenpeturiko mozioaren lehenengo puntua sartzeko proposamena, aho batez, onartu ostean.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 17 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, EA, EAJ/PNV) eta 3 abstentzioz (PP eta EAko Oiarbide jauna),

ERABAKI DU



Onartzea Landarbaso aldean erraustegia ez jartzeari buruzko mozioa, PSE-EE, EA, PP, EAJ-PNV eta EBk izenpetua, zeina ondorengo eran idatzia baitago:

PSE-EE, EA, PP, EAJ-PNV eta EB-IUk izenpeturiko mozioa, Landarbaso aldean erraustegia jartzeari buruzkoa.

Ekainaren 22an Donostia-San Sebastianeko Udaltzarak erabaki zuen Igoi Azpi, Landarbaso kokatutako eremua, leku egokia dela PIGUGen hondakinak tratatzeko sistema integralean aurreikusitakoa kokatzeko.

Erakundeen arteko beharrezko errespetua dela eta, hasiera batean, ez dagokio gure Udalarik beste hainbat udalerrik bere eskumenekoak diren gaien inguruan hartutako erabakiak ebaluatzea, baina, gure ustetan, erabaki hori ez da egokiena.

Gure ustez Landarbaso parajeak hainbat ezaugarri ditu, hala nola, ingurumen aldetik (Aiako Harria Natur Parkearen eta horri dagokion BIL-aren inguruan dago), eta paisaiaren aldetik (gizakiaren eragin txikiko eremua). Alde horietatik begiratuta zail egiten da ulertzea eremu horretan inolako azpiegitura eraikitzea. Are gehiago kontuan hartzen badugu paraje honek Errenteriako biztanleekiko izan duen harreman berezia; izan ere, historikoki harreman afektibo estua izan du, eta beraz, eremu horretan edozein jardura aurrera eramatea herriko biztanle guztiek asko maite duten eremu bat errespetu gutxirekin tratatzea suposatuko luke.

Hori dela eta, Errenteriako Udalarik proposatzen diogu ondoko akordioa har dezan:

1. Errenteriako Udala erraustegia Landarbaso jartzeko proiektuaren aurka dago erabat.
2. Eskatzea Donostia-San Sebastianeko Udalarik berraztertze PIGRUGen hondakinak tratatzeko sistema integralean aurreikusitakoa kokatzeko Igoi Azpi izateko erabakia, gune horrek errenteriarrentzat ingurumen, kultura eta paisaiaren aldetik duen garrantziarengatik.
3. Eskatzea zerikusia duten administrazioei baldintzak betetzen direla bermatzeko, batez ere, ingurumen alorrekoak, proposatzen den kokapena edozein izanda ere.
4. Akordio honen berri ematea Donostia-San Sebastianeko Udalarik, San Markos Mankomunitateari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, eta eskatzea zaborrak jartzeari buruzko informazio eta parte hartzea kanpainak abian jartzeko.

Jarraian,

S.O.S. Añarbe, San Markos eta Errenteria-Orereta Bizirik plataformek eta Aralar alderdi politikoak erraustegia Landarbaso aldean jartzeari buruz izenpeturiko mozioa bozkatu dute.

Udaltzarak, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EA, EAJ/PNV), aurkako 2 botorekin (EB-IU) eta 3 abstentzioz (PP eta EAKo Oiarbide jauna),

E R A B A K I D U

Aztera botatzea S.O.S. Añarbe, San Markos eta Errenteria-Orereta Bizirik plataformek eta Aralar alderdi politikoak erraustegia Landarbaso aldean jartzeari buruz izenpeturiko mozioa, zeina erabaki honen azalpen-zatian jasota geratu baita.



10. Galdera eta eskariak.

Ez du inork galdera-eskaririk egin.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, batzordeburuak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 11:15 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.